MEMORIA
2024

ELANKIDETZA
LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Siglak eta akronimoak

AKUAL	*Ertamerika-Euskadi ur eta saneamenduaren arloko erakundearteko lankidetza-programai*
BEK	Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak
CIDH	Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordea
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EHE	Ekintza humanitariorako proiektuak finantzatzeko lerroaia
eLankidetza	Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia
GBA	Genero-berdintasunaren aldeko aldaketa-prozesuei laguntzak erakundeetan
GGKE	Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea
GHJ	Garapen Jasangarrirako Helburuak
(H)ABIAN 2030	Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia
HNSM	Simão Mendes Ospitale Nazionala
IZE	Dirulaguntza izendunak
NBE	Nazio Batuen Erakundea
PGM	Lankidetza-programetarako laguntzak
PRE	Ekintza humanitariorako proiektuak finantzatzeko lerroa
PRO K1	Garapenerako lankidetza-proiektuetarako laguntzak
PRO K2	Produkzio-garapeneko eta prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzak
PRO K3	Garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzak
SAR	Garapenerako lankidetzako *Ignacio Ellacuría* saria
SEAD	Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa
ZUZ	Zuzeneko dirulaguntzak

2024a laburrean

2024an emandako dirulaguntzak


176 ekimen


43 herrialde

9 dirulaguntza-lerro

56,7 milioi euro eman ziren

900mila pertsona baino gehiago lagunduak





Plangintza eta araudia

- Lankidetzarako eta elkartasunerako 3/2024 Legea
- 2018-2024ko IV. Gida Planaren ebaluazioa
- 2024-2026 Babes Ibilbide-orria eguneratzea

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako esperientzien eta ezagutza teknikoen trukea

12 pertsona

3 herrialde (Ginea Bissau, El Salvador eta Egipto)

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osakidetza

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

ura
URAREN EUSKAL AGENTZIA | AGENCIA VASCA DEL AGUA

Sarrea

2024. urtea mugarri garrantzitsua izan zen lankidetzaren euskal ekosistemarentzat, 3/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarakoa eta Elkartasunerakoa, onartu baitzen. Lege hori 2024ko martxoaren 1ean sartu zen indarrean, eta euskal lankidetzaren eta elkartasunaren ikuspegi partekatua islatzen duen adostasuna ahalbidetu zuen partaidetza-prozesu zabal baten emaitza da. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko administrazio publikoek, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, unibertsitateek, zentro teknologikoek, erakunde feministek, LGTBI+ kolektiboek, pertsona migratuen elkarteek, Nazio Batuen agentziek eta hezkuntza-eragileek parte hartu zuten, besteak beste. Ikuspegi inklusibo horrek ahalbidetu zuen legea gizarteko sektore guztien beharren eta helburuen isla izatea.

Legearen berritasun nagusien artean, honako hauek daude: Euskal sektore publikoarentzat esparru komun bat ezartzea hiru mailetan; garapen jasangarrirako politiken koherentzia sartzea – hegoaldeko herrialdeetan eta etorkizuneko belaunaldietan izango dituen eraginak kontuan hartuta –; arau bereziak eta prozedura espezifikoak sortzea kudeaketa arinagoa eta lankidetzan aritzen diren herrialdeen errealitateetara egokitua izateko; eta errenta nazional gordinaren % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialera bideratzeko finantza-konpromisoa.

Aurrerapen ugari lortu duen arren, 3/2024 Legea ezartzeak hainbat erronka dakartza, hala nola indarrean dauden dekretu eta tresna arauemaileak legearen printzipio eta helburu berriekin lerroka daitezen egokitu beharra; lankidetza-ekintzen koherentzia eta eraginkortasuna bermatuko duten plangintza estrategikoak garatzea; edo helburuak betetzen direla eta lankidetza-politikak etengabe hobetzen direla bermatzeko ebaluazio- eta jarraipen-mekanismo sendoak ezartzea.

Hala, epe laburrera begira, aurre egin beharreko erronkarik larrienetako bat da plangintza-esparru berria sortzeko beharra, Jaurlaritzaren baterako ikuspegiarekin. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren urte anitzeko plangintza legearen elementu nagusietatik abiatuta definituko da, eta arreta berezia jarriko zaio garapen jasangarrirako politiken koherentziari. eLankidetzatik gure plangintza propioa definituko dugu Jaurlaritza osoaren plangintzaren esparru orokorretik abiatuta.

Laburbilduz, 3/2024 Legea onartzeak mugarria ezarri du gure lankidetza- eta elkartasun-politikan, eta etorkizun bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzeko oinarriak finkatu ditu.

Aurkibidea

1 JARDUEREN URTEKO MEMORIA

1.1. Garapen jasangarrirako politiken koherentzia eta erakundearteko koordinazioa

1.2. Arlo estrategikoak – gatazken eraldaketa eta bakegintza

1.3. Giza eskubideak

1.4. Generoa

1.5. Afrika

1.6. Ekintza humanitarioa. Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk

1.7. Gizarte-eraldaketarako hezkuntza

1.8. Ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa

1.9. Jarraipen-bidaiak

1.10. Komunikazioa

1.11. Araudia eta plangintza

1.12. Pertsonen eta baliabideen kudeaketa

2 AURREKONTUAREN EGIKARITZEA ETA EMANDAKO FUNTSAK

2.1. Aurrekontu-bilakaera

2.2. eLankidetzaren aurrekontuaren egikaritzea

2.3. Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente eta erakunde autonomoen aurrekontuen egikaritzapena

2.4. eLankidetzak 2024an emandako dirulaguntzak



01

Jardueren urteko memoria

Kapitulu honetan eLankidetzak 2024an egindako ekimen nagusiak bildu ditugu, Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planaren (2018-2021) ardatz nagusien arabera. Plan hori 2022-2024 aldirako luzatu zen.

AUZO(LAN)KIDEAK ekimenak urtean zehar egindako aurrerapenak[1] ere azalduko ditugu kapitulu honetako ataletan.

1.1. Garapen jasangarrirako politiken koherentzia eta erakundearteko koordinazioa

eLankidetzan uste dugu garapen jasangarrirako politiken koherentzia, baterako lana eta erakundeen arteko koordinazioa funtsezkoak direla erronka globalei aurre egiteko. Horregatik, lan-ardatz hori bultzatzen eta indartzen jarraitzen dugu, bai Eusko Jaurlaritzaren barruan, bai beste erakunde batzuekin.

1 AUZO(LAN)KIDEAK ekimen enblematiko anitzak dira, eLankidetzaren IV. Gida Plana indartzeko baliagarriak direnak, lan egiteko modu berriak sortzeko helburuarekin elkarrizketari garrantzi handiagoa emanez.

1.1.1. Garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldea

2024an, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldea berpiztu zen.

Urtean zehar lau saio egin ziren esperientziak ezagutzeko eta arlo horretan elkarrekin hausnartzeko. Lehenengoan, Donostiako Udaleko Berdintasun, Elkartasun eta Eskubide Zibilen zinegotzigoaren mendeko arloetako politiken koherentziari buruzko txostena ezagutarazi zen. Hurrengo hiruretan, erosketa publiko arduratsua sustatzeko esperientziak partekatu ziren IHOBE, Emakunde, REAS Euskadi, Gizatea, Ehlabe eta Setem Hego Haizea erakundeen eskutik.

1.1.2. Ekarpena mundu osoko osasunari

2024an, *Ginea Bissau-Euskadi Osasun Globaleko* programa bultzatzen jarraitu genuen. 2022an sortutako programa Ginea Bissauko osasun arloko sistema publikoa sendotzeko lankidetza teknikoko ekimena da: Osasun Sailaren, Osakidetzaren, eLankidetzaren eta AIDA elkartearen (Ayuda, Intercambio y Desarrollo) arteko lankidetzaren emaitza da, eta Simão Mendes Ospitale Nazionalean (HNSM), herrialdeko erreferentziazko ospitalean, egiten da.



Hirugarren urtean lortutako emaitza nagusiak:

- Hamar jarduketa-protokolo egin dira.
- Iraupen luzeko egitura-prestakuntzak sendotu dira anestesia, barne-medikuntza / larrialdiak eta kirurgia espezialitateetan.
- Erizaintzako oinarrizko zainketen diploma ezarri da anbulatorioetako eta larrialdietako sendaketa-zerbitzuetan.
- Prestakuntzako 300 saio baino gehiago eskaini eta prozedurak sortu dira.
- Laguntza sexuaren arabera bereizitako datuak eta adierazleak biltzerakoan.
- Kontsulta arteko zerbitzuak indartzea.
- Sendagaien, intsumo medikoen eta ekipamenduaren hornidura bermatzea.
- Bost osasun-ebakuazio Euskadin, ebakuntza kirurgiko konplexuak egiteko.

Urtean zehar, osasungintzan lan egiten duten hamar kooperantek (haietako sei Osakidetzakoak) beren harri-koskorra jarri zuten osasungintzako trebakuntza jarraitua ziurtatzeko eta HNSMko laguntzaren kalitatea hobetzeko, zerbitzu hauetan: larrialdiak, barne-medikuntza, kirurgia-blokea eta kirurgia, besteak beste. Haiekin batera, osasungintza arloko bertako beste zortzi osasun-langile ere izan dira taldekideak.

Bestalde, komunikazio arloari dagokionez, hainbat helburu zituzten bi kanpaina jarri genituen abian. Lehenengoa Osakidetza barrura zuzenduta egon zen eta osasun-programa euskal osasun-zerbitzuko langileen artean zabaltzeko eta langile horiek ekimenean parte hartzera bultzatzeko helburua zuen. Bigarrena ekainean zabaldu zen, EITB taldearen ikus-entzunezko komunikabideen bidez, eta ***ekimena indarrean egon den azken bi urteetako lorpenak*** laburbildu zituen, Euskadiko herritarrengana hurbiltzeko.

1.1.3. AKUAL programa

Maiatzean, Euskal Fondoak, Emakundek eta eLankidetzak osatutako euskal ordezkaritza El Salvadorrera joan zen *AKUAL - Ertamerika-Euskadi ur eta saneamenduaren arloko erakunde arteko lankidetza-programari* jarraipena egiteko. Bertan, bi egunetako tailerra egin zen ura eta saneamendua kudeatzeko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeari buruz.

Programak 2024an lortutako emaitza nagusiak:

- Azpiegiturei dagokienez, hiri eta landa arloko hornidura-sistema hobetzeko lanean aurrera egin da.
- Aurrera egin da ura kudeatzeko tokiko erakundeetan genero-ikuspegia txertatzeko lanean.
- Ekimenaren komunikazioa kudeatzeaz arduratuko den pertsona bat kontratatu da, eta komunikazio-estrategia ezartzen hasi.
- Ertamerikako eta Dominikar Errepublikako Edateko Uraren eta Saneamenduaren Foroko kide diren tokiko eta eskualdeko erakundeen gaitasunak sendotu dira.





1.1.4. Jarduketa-protokolo orokorrak Hezkuntza Sailarekin eta IHOBErekin

2024an, ekimenak bultzatu genituen, zuzeneko dirulaguntzen bidez, Hezkuntza Sailarekin eta IHOBErekin sinatutako jarduera-protokolo orokorretan definitutako interes komuneko arloetako bati erantzuteko: lankidetza eta laguntza teknikoa bultzatzea.

Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, UNRWA - Palestinar Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziari lagundu genion bere lanbide heziketako programa eraldatzeko prozesuan 2024-2026 aldian, Jordaniako lanbide heziketako bi zentrotatik hasita. Proposamenaren esparruan, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak UNRWAko lanbide-heziketako ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen eta irakasleen gaitasunak indartzeko prestakuntzak bultzatu zituen, bai eta automozio elektrikoari, eguzki-energiaren sistemei, hortz-teknologiari eta erizaintzari buruzko ikastaroetako ikasketa-planak eguneratzeko eta hobetzeko esperientziak partekatu ere.

IHOBErekin, Nazioarteko Elkartasuna eta Euleuk elkarteak babestu genituen, Malicoundako (Senegal) komunan hondakinen kudeaketa komunitarioa hobetzeko -*ikusi 1.5.3. atala*-. Gainera, azaroan, eLankidetza eta IHOBE osatzen ditugun pertsonak elkar ezagutzeko tailerra antolatu genuen, sinergiak eta lankidetzarako ekintza zehatzak identifikatzeko.

1.1.5. Ekarpena genero-berdintasunari eta -ekitateari

Emakunderekin eta EUDELen Virginia Woolf Basqueskolarekin batera, diplomatu birtual bat diseinatzen eta ezartzen parte hartu genuen El Salvadorren emakume munizipalisten prestakuntza politikorako. Diplomatu hori El Salvadorreko NBE Emakumeak erakundea eta El Salvadorreko Emakumezko Alkateen Elkarte Nazionalak (ANDRYSAS) zuzentzen dute.

Gainera, diplomaturaren amaiera-ekitaldian hartu genuen parte El Salvadorren, emakume munizipalisten arteko ***elkartrukean*** non bi udalerrietako agintariak eta teknikariak egon ziren. Elkartruke horien helburua Euskadiko eta El Salvadorreko udalerriek emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko plangintzan, eragin politikoan eta emakume liderrek eta emakumezko politikariek prestakuntza-prozesuetan dituzten jardunbide egokiak gizarteratzea izan zen.

Era berean, Arabiar Estatuetako NBE Emakumeak erakundearen *Dare to Care* programari emandako laguntzaren esparruan, Emakundek (ekimenari laguntza teknikoa ematen diona) kargu publikodun gizonen berdintasunaren aldeko sarearen lehen topaketan hartu zuen parte Egipton, eta Gizonduz, gizonekin eta maskulinitateekin berdintasunaren aldeko euskal zerbitzuaren esperientzia partekatu zuen.



1.1.6. Saint-Louiseko (Senegal) eta Euskadiko eragileen arteko elkarlanerako memoranduma

Ezarritako lankidetza-lerroak:

- **Erakunde mailakoak**
  a. Erregistro zibilaren sistema modernizatzea.
  b. Informazio geografikoko sistema.
  c. Errolda-sistemaren hedapena eta tokiko fiskalitatearen garrantzia.
- **Prestakuntza arlokoa**
  a. Euskal unibertsitateen eta Gaston Berger Unibertsitatearen arteko trukea, ikuspegi pedagogikoak garatzeko.
- **Eragileak indartzea**
  a. Emakumeen ahalduntzea eta partaidetza ekonomikoa, politikoa eta soziala.

2023ko azaroan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Fondoak eta eLankidetzak misio bat egin zuten Senegalgo Saint-Louisera, lankidetza teknikoko estrategia zehazteko. Horri jarraipena egiteko, 2024an, elkarlanerako Memoranduma (lau urteko iraupenekoa) sinatu zen Euskadiko eta Saint-Louiseko komunako erakundeen artean, eta erakundeen arteko lankidetzarako esparru orokorra ezarri zen, komunako gaitasunak indartzeko ezagutza teknikoak eta kudeaketakoak elkartrukatuz.

Akordioaren helburua da gobernantza-sistemetan eraldaketa positiboak lortzea, tokiko biztanleen behar espezifikoei erantzuteko.

1.2. Arlo estrategikoak – gatazken eraldaketa eta bakegintza


Urtearen hasieran, koordinazio-bilera egin genuen AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN – Kolonbia mahaia osatzen duten eragileekin batera. Eta apirilean, Bilboko Udalarekin eta Phare Territorios Globales elkartearekin batera, tailerra antolatu genuen, Euskadik Kolonbiako Hiri Agendari eta Indarkeriarik Ezari egindako esperientzian oinarrituta bere ekarpena egiteko.

Phare elkartea eta Kolonbiako Nazioarteko Lankidetzarako Presidentetza Agenda babestu ditugu, zuzeneko dirulaguntza baten bidez, Buenaventura hirian hiri-agenda ezartzeko. Ekimena Kolonbian, Latinoamerikan eta munduko beste toki batzuetan eredugarri bihurtzea espero da.

1.3. Giza eskubideak

1.3.1. Emandako funtsen % 4 giza eskubideen defendatzaileak babesteko erreserbatzea

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Onartutako babes-ekimenen kopurua	Babeserako emandako zenbatekoa	Babeserako funtsak, emandako funtsen aldean
PRO K1	59	31.700.000,00 €	10	2.655.711,96 €	% 4,68
PRO K3	25	6.672.873,58 €	3	473.055,77 €	% 0,83
ZUZ	12	2.736.800,37 €	2	205.284,81 €	% 0,36
IZE	23	3.642.400,00 €	2	179.400,00 €	% 0,32
Beste tresna batzuk	57	12.016.539,75 €	-	-	-
GUZTIRA	**176**	**56.768.613,70 €**	**17**	**3.513.452,54 €**	**% 6,19**




Aurten, zuzeneko dirulaguntzen bidez, Giza Eskubideen Amerikarteko Batzordearen (CIDH, gaztelaniazko sigletan) lana babestu dugu kautelazko neurrien arloan, eta Just Associates Southern Africa erakundearen lana babestu dugu Afrikako hainbat herrialdeetan mugimendu feministak indartzeko eta emakume defendatzaileak babesteko. Gainera, IM-Defensoras erakundearen indartze instituzionalera lagundu genuen eta *NARE- Eusko Jaurlaritzaren Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa* babesten jarraitu genuen, ZEHAR-Errefuxiatuekin erakundeari dirulaguntza izendun baten bidez.

Giza eskubideen defendatzaileen babesa

17
EKIMEN ONARTU ZIREN

+3,5 €
MILIOI
BAINO GEHIAGO EMAN ZIREN



MEXIKO

Gizarte prozesuak eta giza eskubideen, herri indigenen eta lurraren defendatzaileak indartzea. II. Fasea.

▷**157.083,70 €** - PRO K1 (*)

GUATEMALA

Giza eskubideak defendatzeko lana sustatzea Iximulewen, giza eskubideen defendatzaileak, komunikatzaileak eta antzinako agintariak indartuz.

▷**181.808,68 €** - PRO K1 (*)

Guatemalako mendebaldeko Maya Kiche eta Mam herriak giza eskubideak eta demokrazia barne-hartzailea defendatzeko eta bermatzeko estrategia politikoa bultzatzen dute.

▷**126.091,38 €** - PRO K1 (*)

Emakume maiak Q 'eqchi eta maiak Kaqchiquel, gizarte justu eta inklusibo bat eraikitzen laguntzen dute, ikuspegi feministatik eta antzinako herrietatik.

▷**51.462,73 €** - PRO K1 (*)

Guatemalako pertsona, erakunde eta komunitateen giza eskubideak defendatzeko eskubidearen alde.

▷**549.834,28 €** - PRO K1

(*) Zifra hori giza eskubideen defendatzaileak babestera bideratzen den dirulaguntzari dagokio. Hau da, ez da dirulaguntza osoa.

EL SALVADOR, HONDURAS, MEXIKO ETA NIKARAGUA

IM-Defensoras erakundea indartzea babes integral feministako prozesuak bultzatzeko.

▷**100.000,00 €** - IZE

GUATEMALA, HONDURAS ETA KOLONBIA

Bazterketa-egoera historikoan dauden taldeetako pertsonek Latinoamerikan giza eskubideak urratu dizkieten biktimei babes handiagoa ematea.

▷**110.000,00 €** - ZUZ

EL SALVADOR

Genero-ikuspegia duten komunitate erresilienteak ehundu, giza eskubideen defendatzaileak babesteko eta ondasun naturalak eta lurraldea defendatzeko.

▷**208.221,93 €** - PRO K1 (*)

Bizitza erdigunean: emakumeen eta naturaren eskubideen defentsaren alde.

▷**600.000,00 €** - PRO K1

Emakumeek euren eskubideak defendatzeko eskubidearen alde, babes feministaren ikuspegi integral batetik.

▷**156.549,33 €** - PRO K1 (*)

KOLONBIA

Giza eskubideen eta lurralde-bakearen defentsa, parte-hartzailea eta eraldatzailea Pazifikoan eta Hego-mendebaldean.

▷**467.728,29 €** - PRO K1 (*)

EKUADOR

Herri indigenek eta nekazariek lurralde-gobernantza, eskubideak eta naturaren defendatzaileen babesa eta emakume eta gazteen lidergoa indartzen dituzte.

▷**156.931,64 €** - PRO K1 (*)

EUSKADI

Bizitza defendatzea II: estrategiak sendotuz euskal gizarte-eragileekin, emakume giza eskubideen defendatzaileak eta haien erakundeak babesteko.

▷**265.912,43 €** - PRO K3

Belizismoaren, autoritarismoaren eta erantzun patriarkalaren aurrean giza eskubideak defendatzeko diskurtso eta praktika feministak sustatzea.

▷**114.314,36 €** - PRO K3 (*)

Ingurumena zaintzetik gizarte- eta ingurumen-justizia sustatzera: aldaketa-proposamenak ikuspegi ekofeministatik eta giza eskubideen ikuspegitik. III. Fasea.

▷**92.828,98 €** - PRO K3 (*)

Eusko Jaurlaritzaren *NARE - Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa* indartzea.

▷**79.400,00 €** - IZE

MALAWI, ZIMBABWE, HEGOAFRIKA, KENYA ETA UGANDA

Mugimenduen indartze feminista: eskubideak defendatzea aurkako testuinguruetan.

▷**95.284,81 €** - ZUZ (*)

1.3.2. eLankidetza babes-agentea giza eskubideen defendatzaileentzat

NARE - Eusko Jaurlaritzaren Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa

Urtarrilean, Euskal Legebiltzarra eta gizarte erakundeekin batera, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza buru izaki Kolonbiara egindako misioan parte hartu genuen, programaren azken edizioen baitan Euskadin harrera egin zitzaien sei pertsonen egoerari jarraipena egiteko. 2024ko edizioan, giza eskubideen El Salvadorreko giza eskubideen defendatzaile bat eta Kolonbiako bi defendatzaile sei hilabeteko aldirako hartu zituzten Euskadin.

Urtearen azkenengo lauhilabetean, proTEJER sarearen Estatu mailako urteko topaketan parte hartu genuen. Estatuan giza eskubideen defendatzaileak aldi baterako hartzeko programen sare bat da, eta topaketa Asturiasen egin zen. Espazio horren helburua izan zen elkarren arteko ekintzak koordinatzea eta Estatu mailan programen sarea indartzea.

nare
GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA
PROGRAMA VASCO DE PROTECCIÓN PARA DEFENSORAS Y DEFENSORES DE DERECHOS HUMANOS

Pertsonak, erakundeak, komunitateak eta giza eskubideak defendatzen dituzten sareak babesteari buruzko gogoeta- eta ikaskuntza-taldea

2024an, pertsonak, erakundeak, komunitateak eta giza eskubideak defendatzen dituzten sareak babestearen arloan hausnartzeko eta ikasteko talde bat jarri genuen martxan. Horrela, eLankidetzatik gune honetara deitu genituen, martxoan eta abenduan, babesaren arloko prozesuak bultzatzeko euskal erakunde nagusiak, gaiari buruzko gogoeta egiteko eta ikaskuntzak partekatzeko.

1.3.3. Ikaskuntzak eta jardunbide egokiak giza eskubideen urraketen biktimekin lan egitean

2023an Carlos Martín Beristainekin eta euskal lankidetza-eragileekin batera Latinoamerikako espazio zibikoaren itxierari buruz egin genuen lan-saioaren ondoren, erabaki genuen txosten bat garatzea giza eskubideen urraketen biktimei laguntzeko helburuarekin.

Txostena, Carlos Martin Beristainek egina, Latinoamerikako, Afrikako eta Euskadiko hainbat herrialdetako elkarteen erresilientzia-, babes- eta indartze-estrategiak ezartzeko ikaskuntzei eta jardunbide egokiei buruz dihardu.




1.4. Generoa


1.4.1. Emandako funtsen % 20 emakumeak ahalduntzeko eta % 10, Hegoko erakunde feministentzako erreserbatzea

2024an, emandako funtsen % 17,14 emakumeak ahalduntzeko ekimenetara bideratu genituen, eta % 15,92 hegoaldeko erakunde feministetara.

Bi ehuneko horiek jaitsi ziren iazko datuarekin alderatuta. Emakumeen ahalduntzeari dagokionez, gutxitu izanaz gain, ez gara iritsi ekintza positiborako ezarritakoaren % 20ra. Hegoaldeko erakunde feministen kasuan, ehunekoa aurreko urtekoa baino txikiagoa izan arren, plangintzan jasotako ekintza positiboaren % 10eko tasa gainditu dugu.

			AHALDUNTZEA			HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTAK		
Tresna	**Onartutako ekimenak guztira**	**Emandako zenbatekoa guztira**	**Emakumeak ahalduntzeko onartutako ekimen kopurua**	**Emakumeak ahalduntzeko emandako zenbatekoa**	**Ahalduntzeko funtsak, emandako funtsen aldean**	**Tokiko bazkideak diren erakunde feministekiko ekimen kopurua**	**Tokiko bazkideak diren erakunde feministentzat emandako zenbatekoa**	**Erakunde feministentzako funtsak, emandako funtsen aldean**
PRO K1	59	31.700.000,00 €	14	7.510.996,46 €	% 23,69	19	8.255.120,78 €	% 26,04
PRO K3	25	6.672.873,58 €	1	211.767,35 €	% 3,17	-	-	-
PRE	29	5.705.803,95 €	-	-	-	4	368.040,00 €	% 6,45
EHE	6	4.773.259,61 €	2	1.599.999,34 €	% 33,52	-	-	-
ZUZ	12	2.736.800,37 €	1	250.000,00 €	% 9,13	1	250.000,00 €	% 9,13
IZE	23	3.642.400,00 €	1	100.000,00 €	% 2,75	1	100.000,00 €	% 2,75
PGM	5	149.846,20 €	2	60.000,00 €	% 40,04	3	63.355,68 €	% 42,28
Beste tresna batzuk	17	1.387.629,99 €	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	**176**	**56.768.613,70 €**	**21**	**9.732.763,15 €**	**% 17,14**	**28**	**9.036.516,46 €**	**% 15,92**


% 2,57
Afrika
Ekimen 1
250.000 €
% 2,18
Euskadi
Ekimen 1
211.767,35 €
% 6,14
Nazioartekoa
Ekimen 1
597.159,84 €
% 33,01
Hego Amerika
7 ekimen
3.212.822,60 €
EMAKUMEAK AHALDUNTZEA
GUZTIRA 9.732.763,15 €
% 27,34
Ertamerika, Mexiko eta Karibe
7 ekimen
2.661.046,04 €
% 28,77
Asia
4 ekimen
2.799.967,32 €


% 7,53
Afrika
4 ekimen
680.621,85 €
% 14,05
Asia
4 ekimen
1.270.007,98 €
% 40,04
Ertamerika, Mexiko eta Karibe
12 ekimen
3.618.337,62 €
HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTAK
GUZTIRA 9.036.516,46 €
% 38,37
Hego Amerika
8 ekimen
3.467.549,01 €

Emakumeen ahalduntzea eta erakunde feministak (3/1)

21
EKIMEN
AHALDUNTZERAKO
ONARTU ZIREN

+ 9,7 €
MILIOI
AHALDUNTZERAKO
EMAN ZIREN

28
EKIMEN
HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
ONARTU ZIREN

+ 9 €
MILIOI
HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
EMAN ZIREN

● EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
● ERAKUNDE FEMINISTA



EL SALVADOR

Aldaketa ehuntzen: ehungintzako langileen ahalduntzea eta lidergoa indartzea.

▷**543.242,83 €** - PRO K1 - Mujeres Transformando

Mugimendu feminista, elkarrekin eta indartsu: Ertamerikako eta Euskadiko gorroto-diskurtsoen aurkako mugaz gaindiko aliantzak ehuntzen.

▷**30.000,00 €** - PGM - Las Dignas eta Mujeres Ixchel

Bizitzaren erdigunean: emakumeen eta naturaren eskubideen defentsaren alde.

▷**82.446,64 €** - PRO K1 - Mujeres Huizucareñas (*)

Siwatulin: San Salvadorren emakumeen eta LGBTI+ pertsonen indarkeriarik gabeko bizitzetarako eskubidea sustatzeko, mugimendu feminista eta akademia indartzea.

▷**600.000,00 €** - PRO K1 - Colectiva Feminista

Erresistentziako harrotasuna: hainbat mugimendu artikulatu LGBTI+ pertsonen eskubideak defendatzeko, babesteko eta ezagutarazteko.

▷**159.576,83 €** - PRO K1 - ORMUSA (*)

Emakumeek eskubideak babes integral feministaren ikuspegitik defendatzeko duten eskubidearen alde, bi eskualdetan.

▷**337.251,60 €** - PRO K1 - Colectiva Feminista

EL SALVADOR, HONDURAS, MEXIKO ETA NIKARAGUA

IM-Defensoras erakundea indartzea babes integral feministako prozesuak bultzatzeko.

▷**100.000,00 €** - IZE - IM Defensoras

KOLONBIA

Genero-ekitaterantz aurrera egitea, emakumeen ahalduntzetik, lidergotik eta eragin politikotik abiatuta Cajamarcan.

▷**524.700,00 €** - PRO K1

Lurra ereitea, askatasunak biltzea: autonomiarako, elikadura-subiranotasunerako eta indarkeriarik gabeko bizitzarako proiektua landa-eremuko emakumeekin Antioquian.

▷**566.209,68 €** - PRO K1 - Penca de Sábila

Existitzeari duintasuna emanez: emakume, gazte eta nerabe babestuak gatazka armatuaren testuinguruan Buenaventuran.

▷**98.000,00 €** - PRE - AMBULUA (*)

EKUADOR

Cotopaxi Andeetako parkeko emakume indigenak, bizitza duin baten alde eta beren eskubideen defentsa eta aldarrikapenaren alde jarduten ahalduntuak.

▷**583.254,21 €** - PRO K1

BOLIVIA

Zaintzen duten hiriak eta komunitateak: genero-berdintasunerako eta bizitzaren jasangarritasunerako estrategiak.

▷**30.000,00 €** - PGM - IFFI eta ECAM

(*) Zifra hori zuzenean Hegoaldeko erakunde feministek kudeatutako dirulaguntzari dagokio. Hau da, ez da dirulaguntza osoa


Emakumeen ahalduntzea eta erakunde feministak (3/2)

21
EKIMEN AHALDUNTZERAKO ONARTU ZIREN

+ 9,7 €
MILIOI AHALDUNTZERAKO EMAN ZIREN

28
EKIMEN HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTENTZAKO ONARTU ZIREN

+ 9 €
MILIOI HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTENTZAKO EMAN ZIREN



● EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
● ERAKUNDE FEMINISTA

GUATEMALA

Sare feminista emantzipatzaileak antolatzen, bizitzak eta lurraldeak zaintzeko.

▷**543.579,56 €** - PRO K1 - La Cuerda ● ●

Emakume maiak Q 'eqchi eta maiak Kaqchiquel, ikuspegi feministatik eta antzinako herrien ikuspegitik, gizarte justu eta inklusibo bat eraikitzera laguntzen dute.

▷**424.521,35 €** - PRO K1 - Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas ● ●

Mendebaldeko goi-planoko hamar landa-erakundetako emakume indigenen ahalduntzea.

▷**565.017,46 €** - PRO K1 ●

Rutza'qik na'oj richin jun jeb'el k'aslemal.

▷**186.090,89 €** - PRO K1 - Oxlajuj E (*) ●

HONDURAS

Gorputz-lurralde subiranotasuna ehunduz: Hondurasko eta Ertamerikako mugimendu feministak sexu- eta ugalketa-eskubideak eta lurraldea defendatzen dituzte.

▷**454.684,84 €** - PRO K1 - CDM ● ●

EUSKADI

Belizismoaren, autoritarismoaren eta erreakzio patriarkalaren aurrean giza eskubideak defendatzeko diskurtso eta praktika feministak.

▷**211.767,35 €** - PRO K3 ●

HAITI

Landa-eremuko emakumeak: garapen jasangarrirako giltza, pobrezia murrizteko eta zero gosea lortzeko Baineten. II. Fasea.

▷**156.943,07 €** - PRO K1 - REFOJ (*) eta Farm Deside (*) ●

PERU

Emakumeen sareak: genero indarkeriari aurre egiteko estrategia. II Fasea.

▷**591.511,06 €** - PRO K1 - CENDIPP ● ●

Genero-indarkeriaren aurkako emakumeen sareak, Ocucaje, Pueblo Nuevo eta Los Aquijes barrutietan. II. Fasea.

▷**566.793,75 €** - PRO K1 - CENDIPP ● ●

Fundamentalismoak aurrez aurre jarriz. II. Fasea.

▷**599.910,77 €** - PRO K1 - CENDIPP ● ●

Atiy-Yachachiq: Chotako landa-liderrak, generoan oinarritutako indarkeriari ahizpatasunez aurre egiten diotenak.

▷**316.652,81 €** - PRO K1 ●

Lider sozialak eta sare feministak ahaldunduz, sexu- eta ugalketa-eskubideak defendatzeko eta fundamentalismoei aurre egiteko.

▷**598.904,54 €** - PRO K1 - Manuela Ramos ●

Sare feministak eta LBTQ+ indartzea, erabakitzeko eskubidearen eta sexu- eta ugalketa-autonomiaren aldeko agenda nazional baterako.

▷**416.219,21 €** - PRO K1 - DEMUS (*) ●

(*) Zifra hori zuzenean Hegoaldeko erakunde feministek kudeatutako dirulaguntzari dagokio. Hau da, ez da dirulaguntza osoa

Emakumeen ahalduntzea eta erakunde feministak (3/3)


21
EKIMEN
AHALDUNTZERAKO
ONARTU ZIREN

+ 9,7 €
MILIOI
AHALDUNTZERAKO
EMAN ZIREN

28
EKIMEN
HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
ONARTU ZIREN

+ 9 €
MILIOI
HEGOKO ERAKUNDE
FEMINISTENTZAKO
EMAN ZIREN

● EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
● ERAKUNDE FEMINISTA



LIBANO

Ahalduntze sozioekonomikoa, intzidentzia eta emakume errefuxiatuen ahultasuna murriztea Saidako hamaika kokaleku informaletan.

▷**799.999,34 €** - EHE ●

ETIOPIA

Tigrayko gatazka armatuak eragindako herritarren babesa, eskubideak eta osasuna, eta baita generoan oinarritutako sexu-indarkeriatik eta indarkeriatik bizirik atera direnen eskubideen babesa ere, genero-ikuspegiarekin eta Lotura Hirukoitzarekin.

▷**200.000,00 €** - PRE - WE - Action ●

SENEGAL

Komunitatetik eskualdekora: haurren ezkontzaren aurkako sektore anitzeko abordatzea eta Nigerrekin agenda komun bat diseinatzea.

▷**227.266,17 €** - PRO K1 - Réseau Siggil Jigéen (*) ●

MALI, SEAD, SENEGAL ETA MAURITANIA

Mendebaldeko Afrikan emakumeen bake-agenda sustatzea.

▷**3.355,68 €** - PGM - Unión Nacional de Mujeres Saharauis (*) eta Femmes Chefs de Famille (*) ●

NAZIOARTEKOA

Nekazarien eta herritarren feminismoa, La Vía Campesinako eraikuntza lokaletik globalera. II. Fasea.

▷**597.159,84 €** - PRO K1 ●

SIRIA

Ahalduntze-estrategiak palestinako emakume errefuxiatuen zaurgarritasuna murrizteko.

▷**800.000,00 €** - EHE ●

PALESTINA

Okupaziopean dauden palestinarren eskubideak eta duintasuna osorik babestea lokalizatutako lotura-ekintza, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean oinarrituta.

▷**20.000,00 €** - PRE - PSCCW (*) ●

Ekialdeko Jerusalemen palestinarren babes integrala, erresilientzia eta giza eskubideak sustatzea.

▷**50.040,00 €** - PRE - UPWC (*) ●

INDIA

Emakumeen ahalduntzea agroekologia bioanitzaren bidez, elikadura-subiranotasuna eta hazien, osasunaren eta emakumeen eta lurraren eskubideak defendatzeko.

▷**600.000,00 €** - PRO K1 - Navdanya Trust ● ●

Uttar Pradesh, Bihar eta Jharkhandeko emakumeen eskubideak bermatuko dituen parte-hartze politikoa eta gizarte-eraldaketa sustatzea.

▷**599.967,98 €** - PRO K1 - CREA ● ●

MALAWI, ZIMBABWE, HEGOAFRIKA, KENYA ETA UGANDA

Mugimenduen indartze feminista: eskubideak defendatzea aurkako testuinguruetan.


▷**250.000,00 €** - ZUZ - JASS ● ●

(*) Zifra hori zuzenean Hegoaldeko erakunde feministek kudeatutako dirulaguntzari dagokio. Hau da, ez da dirulaguntza osoa

1.4.2. Genero-ekitatearen aldeko antolamendu prozesuak sustatzea euskal GGKEetan

Lankidetza-erakundeentzako laguntzak, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzearren

2024an, bederatzi laguntza eman genituen, 294.533,41 euroko balioarekin, lankidetzan diharduten euskal erakundeetan genero-berdintasunaren alde erakunde barruko aldaketa-prozesuak sustatzearren.



Barne-antolamenduko generoari buruzko IX. jardunaldiak



Urteko jardunaldiak Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin batera bideratu genituen. Oraingo honetan, parte-hartzeari buruzkoak izan ziren berriro ere jardunaldiak, emakumeen ahotsa entzun eta erabakiak hartzerakoan kontuan hartzen ote den sakonduz.

57 pertsonak parte hartu zuten (% 90, emakumeak).

1.4.3. Garapenerako Estrategia Positiboen XIV. jardunaldiak: hezkidetza-esperientzien arteko elkarrizketa lokala-globala

Martxoan, Bilboko Udalarekin batera, garapen-estrategia positiboei buruzko XIV. jardunaldiak egin genituen, *Hezkidetza-esperientzien arteko elkarrizketa lokala-globala* izenburupean. Horietan, erakunde, instituzio, akademia eta komunikabideetako ehun pertsona baino gehiagok hartu zuten parte.

Jardunaldien helburua izan zen hezkidetzak garapenerako eta berdintasunerako dituen erronkei eta jasandako erresistentzien gorakadari buruz eztabaida egitea. Horretarako, Euskadiko, Espainiar Estatuko, Hegoafrikako, Indiako, Costa Ricako, El Salvadorreko eta Peruko instituzio, gizarte-mugimendu eta erakundeek hezkidetza zer den aztertu zuten, eta berdintasunezko hezkuntza eta gizarterantz aurrera egiteko ikaskuntza eta kontzientzia kritikoa bultzatzen dituzten esperientziak partekatu zituzten.





1.4.4. Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako jarduketa-protokoloa

2024an, Zuzendaritza Batzordeak Sortzen Aholkularitzak proposatutako jazarpenaren aurkako jarduketa protokoloaren zirriborroa berrikusi eta amaitu zuen, eta eLankidetza taldearen barruan protokoloa egiteko prozesuaren ardura zuen talde eragilearekin sozializatu zuen.

Aurreikusten da 2025ean protokoloa onartu eta eLankidetzako talde osoarekin sozializatuko dela.

1.5. Afrika

1.5.1. Emandako funtsen % 25 Afrikako kontinenterako erreserbatzea

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Ekimen kopurua Afrikan	Afrikan emandako zenbatekoa	Afrikarako funtsak, emandako funtsen aldean
PRO K1	59	31.700.000,00 €	15	7.774.834,17 €	% 24,53
PRE	29	5.705.803,95 €	15	2.935.554,03 €	% 51,45
EHE	6	4.773.259,61 €	3	2.373.260,27 €	% 49,72
ZUZ	12	2.736.800,37 €	5	1.056.221,00 €	% 38,59
IZE	23	3.642.400,00 €	4	882.000,00 €	% 24,21
PGM	5	149.846,20 €	1	29.980,59 €	% 20,01
Beste tresna batzuk	42	8.060.503,57 €	-	-	-
GUZTIRA	176	**56.768.613,70 €**	**43**	**15.051.850,06 €**	**% 26,51**

2024an, Afrikarako funtsak emandako funts guztien % 26,51 izan ziren. Hirugarren urtez jarraian, funts banagarrien % 25 Afrikako ekimenetara bideratzeko helburua gainditu genuen.


Berriro ere, lorpen hau, alde batetik, euskal GGKEek eta tokiko erakundeek haien gaitasunak eta deialdi publikoetara aurkezten dituzten proposamenen kalitatea indartzeko egindako ahaleginari esker gertatu zen. Eta, bestetik, eLankidetzaren ekintza positiboen ondorioz; izan ere, deialdietako funtsen ehuneko bat erreserbatzea Afrika hegoaldeko herrialdeetan egiten diren ekimenentzako. 2024ari dagokionez, bereziki aipagarriak dira ekintza humanitarioko tresnen deialdiak; guztira, 18 ekimen onartu ziren (15 proiektu eta 3 estrategia) Afrikan; eta ekimen bat programen deialdian.



Afrika (3/1)

43
EKIMEN
ONARTU ZIREN

+ 15 €
MILIOI
EMAN ZIREN



TXAD

Txad aintzirako probintzian hezkuntza sustatzea eta egoera ahulenean dauden familia desplazatuen bizibideak indartzea.

▷**200.000,00 €** - PRE

BOLI KOSTA

Bas-Sassandrako emakume arrantzaleen ahalduntzean aurrera egitea, artisau-arrantza iraunkorreko kooperatibak indartuz.

▷**599.858,78 €** - PRO K1

HEGO SUDAN

Gatazka eta indarkeriaren ondorioz egoera ahulean dauden nerabe eta gazteentzako eraldaketa-zentroak. IV. Fasea.

▷**200.000,00 €** - PRE

BURUNDI

Elikadura-subiranotasuna sustatzea eta emakumeek Burundiko landa-ingurunean parte hartzea. III. Fasea.

▷**598.650,00 €** - PRO K1

ETIOPIA

Tigrayko gatazka armatuak eragindako herritarren babesa, eskubideak eta osasuna, eta baita generoan oinarritutako sexu-indarkeriatik eta indarkeriatik bizirik atera direnen eskubideen babesa ere, genero-ikuspegiarekin eta Lotura Hirukoitzarekin.

▷**200.000,00 €** - PRE

Errefuxiatuentzako eta harrerako herritarrentzako kalitatezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea.

▷**200.000,00 €** - PRE

Tigray eskualdean gudak kaltetutako landa-komunitateei erantzun humanitario integrala ematea.

▷**199.999,17 €** - PRE

Lau eskola indartzea, haurrak babesteko eta bakea eta berdintasuna eraikitzeko espazio gisa, Afar auzoko bi barrutitan.

▷**199.836,19 €** - PRE

Ikasketa humanitarioen zentroa Mekellen, Tigray.

▷**270.000,00 €** - ZUZ

TANZANIA

La Vía Campesinako emakumeen eta gazteen artikulazioak indartzen Afrikan, nekazarien feminismoaren, prestakuntza politikoaren eta parte-hartzearen bidez. II. Fasea.

▷**579.754,01 €** - PRO K1

MOZAMBIKE

Nerabeen eta haien komunitateen gaitasunak indartzea portaera-aldaketa sustatzeko, haurren ezkontzak eta haurren aurkako indarkeria prebenitzeko.

▷**600.000,00 €** - PRO K1

43
EKIMEN
ONARTU ZIREN

+ 15 €
MILIOI
EMAN ZIREN

Afrika (3/2)

SEAD

Saharar errentzako elikadura-segurtasunerako estrategia.

▷**199.993,91 €** - PRE

Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan ingurumen-osasuneko zerbitzuak hobetzea.

▷**198.425,23 €** - PRE

Osasun oftalmologikoa eta optikoa indartzea Tindufeko kanpamenduetan errefuxiatuta dauden saharar ren artean.

▷**137.300,29 €** - PRE

Saharako errefuxiatuen kanpamenduetako bigarren hezkuntzako ikastetxeetan eskola-elikadurako programa.

▷**800.000,00 €** - EHE

Desgaitasuna duten pertsonen elikadura-segurtasuna hobetzea.

▷**773.260,27 €** - EHE

Saharako errefuxiatuei gas naturala eskuratzeko aukera egokia eta jasangarria areagotzea, etxean dituzten oinarrizko premiak betetzeko.

▷**200.000,00 €** - IZE

GINEA BISSAU

Eskoletan eta landa-komunitateetan klima-aldaketarekiko erresilienteak diren ura, saneamendua eta higienea eskuratzeko aukera bermatzea. II. Fasea.

▷**599.999,00 €** - PRO K1


Osasun-sistema publikoa indartzea, osasunaren arloko lankidetza teknikoaren bitartez. 2024ko plangintza.

▷**550.000,00 €** - IZE

MALI, SEAD, SENEGAL ETA MAURITANIA

Mendebaldeko Afrikan emakumeen bake-agenda sustatzea.

▷**29.980,59 €** - PGM



MALI

Nekazaritzarako, elikadurarako eta merkataritzarako politika publikoak sortzeko esparrua laguntzea, La Vía Campesina indartuz eta defendatuz III. Fasea.

▷**585.486,94 €** - PRO K1

Emakume helduen eta nerabeen ahalduntzea, beren sexu- eta ugalketa-eskubideak defendatzeko eta eskatzeko, eta indarkeriarik gabeko bizitza izateko Sidoko landa-ingurunean.

▷**465.591,49 €** - PRO K1

Zantiguilako landa-eremuan lekuz aldatutako biztanleen bizi-baldintzak hobetzea.

▷**200.000,00 €** - PRE

Eskola seguruak: gatazkaren biktima izan diren haurrei kalitatezko hezkuntzarako sarbide segurua ematea.

▷**199.999,99 €** - PRE

KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA

Giza eskubideen mekanismo komunitarioak indartzea, Hegoaldeko Kivuko biztanleria genero-indarkeriaren aurka babesteko eta prebenitzeko.

▷**551.644,78 €** - PRO K1

Etxeko emakume langileen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzea, euren eskubideak defendatzeko.

▷**287.223,45 €** - PRO K1

Emakume nekazarien lidergoa indartzea hiru probintzietan, nekazaritza ekologiko eta produktibo baterantz aurrera egiteko.

▷**540.618,88 €** - PRO K1

Masisin indarkeria armatuaren gorakadak biztanlerian izandako eraginaren kontra, osasun osoko erantzun humanitarioa eta sexu-indarkeriaren eta generoan oinarritutako indarkeriaren aurkako babesa.

▷**200.000,00 €** - PRE

Sektore anitzeko laguntza humanitarioa, indarkeriazko gatazka iraunkorren ondorioz ekialdeko populazioen bizi-narriadurari aurre egiteko.

▷**200.000,00 €** - PRE


Gizarte-erakundeak indartzea emaitzetan eta garapenerako komunikazio-tekniketan oinarritutako kudeaketa-ikuspegian.

▷**66.000,00 €** - IZE

43
EKIMEN
ONARTU ZIREN

+ 15 €
MILIOI
EMAN ZIREN

Afrika (3/3)



SENEGAL

Kaïra Moussol: bake-emakumeak. Casamancen garapen komunitarioa eta bakearen eraikuntza indartzeko ekintzak gidatzen ari diren emakumeak.

▷**545.968,32 €** - PRO K1

Komunitatetik eskualdekora: haurren ezkontzaren aurkako sektore anitzeko abordatzea eta Nigerrekin agenda komun bat diseinatzea.

▷**405.109,04 €** - PRO K1

Emakume ahaldunduak, funtsezkoak ingurumena babesteko, pobrezia murrizteko eta genero-berdintasunean aurrera egiteko.

▷**593.620,14 €** - PRO K1

Emakumeen elkarteak, komunitateak eta tokiko erakunde publikoak, Malicoundako hondakinen kudeaketa iraunkorra aldatzeko eragile gisa.

▷**307.221,00 €** - ZUZ

Senegaleko gizarte-erakundeen gaitasunak indartzea garapen-proiektuen kudeaketaren, formulazioaren eta jarraipenaren arloan.

▷**66.000,00 €** - IZE

NIGER

Krisi humanitarioak: Lotura Hirukoitza aplikatzea lokalizaziotik eta genero-ikuspegitik.

▷**200.000,00 €** - PRE

Parte-hartze eraldatzaile baterantz eta tokiko lidergo baterantz eskualdean dauden programa humanitarioetan.

▷**50.000,00 €** - ZUZ

KAMERUN

Bois de Singes auzoko emakume desplazatuen elikadura, osasuna eta hezkuntzarako eskubidea.

▷**199.999,25 €** - PRE

SUDAN

Sudan 2024rako Erantzun Humanitarioko Planarekin lerrokatutako eta OCHAk kudeatutako esku-hartze humanitarioetarako ekarpena.

▷**179.000,00 €** - ZUZ

SOMALIA

Egoera ahulean dauden gazteak babestea, ekintzailetzarako eta enplegurako trebetasuna garatuz.

▷**600.000,00 €** - PRO K1

MALAWI, ZIMBABWE, HEGOAFRIKA, KENYA ETA UGANDA

Mugimenduen indartze feminista: eskubideak defendatzea aurkako testuinguruetan.

▷**250.000,00 €** - ZUZ

KENYA

Gatazka armatuen ondoriozko errefuxiatuen osasuna babestuz, sexu-indarkeria eta generoan oinarritutako indarkeria azpimarratuz, tokiko sarea indartuz eta parte hartuz eta kontuak emanez.

▷**800.000,00 €** - EHE

ZIMBABWE

Muchekeko biztanle pobretuek lurra eta etxebizitza seguru edukitzeko duten eskubidean aurrera eginez.

▷**221.309,34 €** - PRO K1

1.5.2. Agente afrikarren gaitasunak indartzeko ikasguneak sortzea

Beren testuinguru eta gaietan Afrikan erreferentzia diren erakunde sareekin-aliantzak sortzearen aldeko apustua egiten jarraitu genuen, sare horien gaitasunak sendotzen lagunduz.

Hala, Senegalgo eta Kongoko Errepublika Demokratikoko GGKEen koordinakundeen bidez, gizarte-eragileen gaitasunak indartzeko esperientziak babestu genituen berriro ere.

1.5.3. Afrikan eta Afrikako agenteekin ekimenak eta ekintzak sustatzea

EKIMENAK EUSKADIN, AGENTE AFRIKARREKIN

Afrikako Egunaren ospakizuna

Afrikar kontinenteko errealitateak ikusarazteko eta afrikar diasporarekiko hurbilketa eta topaketa errazteko asmoz, Bilbon eta Gasteizen dauden migratzaileen elkarteei laguntzen diegu, maiatzaren 25ean ospatzen den Afrikaren Egunaren inguruko jarduerak antolatzeko prozesua bultzatzeko.

Afrikaldia: Afrikar Zinemen Euskal Jaialdia

Kultura Bendera elkartearekin eta Manuel Iradier elkarte afrikanistarekin elkarlanean aritu ginen, *Afrikaldia* Afrikar Zinemen Euskal Jaialdiaren IV. edizioa antolatzeko Gasteizen. Atal ofizialean, Afrikako hamar herrialdetako hamabi lan eskaini zituzten, eta 1.700 lagunek jaialdiko hainbat jarduerez gozatzeko aukera izan zuten.

Nazioarteko zinemaldi lehiakorra izateaz gain, *Afrikaldia* ikus-entzunezko industriako profesionalentzako, ikasleentzako eta publiko orokorrarentzako topagune kulturala da, non Afrikak zein diasporak duen zinematografia eta kultura-aniztasuna, partekatu daitekeen eta elkarren arteko ikaskuntza eta topaketa bultza daitekeen.

Mendebaldeko Sahararekiko Elkartasunaren aldeko Gazteen III. Foroa

Mendebaldeko Sahararekiko Elkartasunaren aldeko Gazteen III. Foroa antolatzen lagundu genuen SEADen Lagunen Elkarteari zuzeneko dirulaguntza emanda.

Topaketa urrian egin zen Bilbon eta helburu nagusia izan zen saharar herriarekiko elkartasunerako nazioarteko gazteen sarea bultzatzea eta elkarrizketaren eta bakearen aldeko apustua egiten jarraitzen duten gazte saharrarrei ahotsa ematea.

Topaketako partaidetza anitza eta ugaria izan zen; izan ere, Afrika, Asia, Europa eta Latinoamerikako 30 herrialde baino gehiagotatik etorritako 200 aktibista gazte baino gehiago bildu zituen. Foroak izaera inklusiboa eta eleanitza izan zuen, eta aldi bereko interpretazio-saioak eskaini ziren, euskaraz, arabieraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

EKIMENAK AFRIKAKO HERRIALDEETAN

Afrikako lankidetza bultzatu, indartu eta zabaltzeko apustua egin genuen, baita zuzeneko dirulaguntzen bitartez ere.

Hondakinen kudeaketa komunitarioa Senegalen

2023an eLankidetza eta IHOBEk sinatutako jarduketa-protokolo orokorrak interes komuneko ardatz gisa identifikatzen du ingurumen-lankidetzako proiektuak abiaraztea Hegoaldeko herrialdeetan – arreta berezia Afrikako kontinenteari –, ingurumen osasuntsu eta seguru baterako sarbide unibertsala bermatzeko.

Hala, 2024an, Senegalen esperientzia handia duten Nazioarteko Elkartasuna eta Euleuk elkarteek bultzatutako ingurumeneko ekimena babestu genuen, Malicounda komunan hondakinen kudeaketa komunitarioa hobetzeko.

Ekimena IHOBEk tokiko egoera ezagutzeko egindako ingurumen-diagnostiko baten ondoren sortu da. Helburua da emakumeen elkarteak eta tokiko kolektiboak ahalduntzea ingurumen osasuntsua izateko eskubidea defendatzeko borrokan, osasungarritasunik ezari aurre egiten laguntzen duten tokiko erakunde publikoen eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzea, eta bizi-ingurune osasuntsua sustatzea, Malicoundako biztanleen bizikalitatea hobetuz.


1.6. Ekintza humanitarioa. Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk

1.6.1. Emandako funtsen % 9 gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan zentratutako ekimenetarako erreserbatzea

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Gatazketan gauzatutako ekimen kopurua	Gatazketan emandako zenbatekoa	Gatazketarako funtsak, emandako funtsen aldean
PRE	29	5.705.803,95 €	29	5.705.803,95 €	% 10,05
EHE	6	4.773.259,61 €	6	4.773.259,61 €	% 8,41
ZUZ	12	2.736.800,37 €	5	1.149.000,00 €	% 2,02
IZE	23	3.642.400,00 €	3	550.000,00 €	% 0,97
SAR	1	15.500,00 €	1	15.500,00 €	% 0,03
Beste tresna batzuk	105	39.894.849,77 €	-	-	-
GUZTIRA	**176**	**56.768.613,70 €**	**44**	**12.193.563,56 €**	**% 21,48**

2024an, gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan zentratutako ekimenetarako funtsak emandako funts guztien % 21,48 izan ziren. Beste nolabait esanda, horixe izan da gehien hazi den ekintza positiboa.

Ekimen horietako batzuek erantzuna ematen diete nazioarteko laguntza eskasa edo laguntzarik ez jasotzen duten eta krisi larri, luze eta ahaztuetan dauden biztanleei, Europar Batasunaren irizpideen arabera[2].




2 Ehuneko horretan ez dago sartuta NBEren Larrialdietan Erantzuteko Funts Zentralari (CERF, ingelesezko sigletan) emandako dirulaguntza izenduna, hondamendi naturalen ondoriozko zein gatazken testuinguruekin eta beste indarkeria-egoera batzuekin lotutako larrialdi humanitarioei erantzuten dielako.

Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk (3/1)

44
EKIMEN ONARTU ZIREN

+12,2
MILIOI €
EMAN ZIREN



MEXIKO

Iparraldeko eta hegoaldeko mugetan mugitzen diren haur eta nerabeen babes-premiei erantzun humanitarioa ematea.

▷**200.000,00 €** - PRE

GUATEMALA

Mugikortasunean dauden pertsonei babes eta laguntza humanitario osoa ematea, bereziki eskubide-urraketen eta generoan oinarritutako indarkeriaren eraginpean dauden emakume eta neskatoei.

▷**199.881,79 €** - PRE

KOLONBIA

Existitzeari duintasuna emanez: emakume, gazte eta nerabe babestuak gatazka armatuaren testuinguruan Buenaventuran.

▷**200.000,00 €** - PRE

Arreta eta babes humanitarioa ematea nahitaez lekualdatu eta konfinatutako komunitate indigenei Juradon.

▷**199.999,99 €** - PRE

Gosea, gatazka eta bakea. Elikagaien segurtasuna babestea Lotura Hirukoitzaren ikuspegitik: alderdi humanitariotik garapenera eta bakera.

▷**100.000,00 €** - IZE

HONDURAS

Mendebaldeko migratzaileen babesa eta laguntza humanitarioa hobetzeko gaitasunak sustatzea.

▷**200.000,00 €** - PRE

VENEZUELA

Etorkizun erresilienteak eraikiz: hezkuntza krisi humanitario konplexuko testuinguruetan dauden herritarrak babesteko tresna gisa.

▷**199.999,00 €** - PRE

KOLONBIA ETA EKUADOR

Zubiak eraikitzen: eskubideak sustatzea, premiak asetzen eta muga-eremuetan integrazioa sustatzen.

▷**800.000,00 €** - EHE

PALESTINA

Emakume eta neska zaurgarriek bizitza duina eta segurua izateko duten eskubidea bermatzea, aurkako testuinguruetan beren erresilientzia indartzeko.

▷**200.000,00 €** - PRE

Okupaziopean dauden palestinarren eskubideak eta duintasuna osorik babestea lokalizatutako lotura-ekintza, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean oinarrituta.

▷**200.000,00 €** - PRE

Ekialdeko Jerusalemen palestinarren babes integrala, erresilientzia eta giza eskubideak sustatzea.

▷**200.000,00 €** - PRE

Israelgo okupazio-politiken biktima diren haur palestinarrak babestea, giza eskubideen aldeko erakundeen kriminalizazio-testuinguruan.

▷**200.000,00 €** - PRE

Gazako gatazkak eragindako biztanleei lehen mailako arreta, osasun mentaleko zerbitzu integralak eta larrialdietan laguntza psikosoziala ematea, genero-ikuspegiarekin eta inklusiboa kontutan hartuta.

▷**170.369,57 €** - PRE

Gazako zerrendan errefuxiatuta dauden palestinarrei osasun-zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, UNRWAren Gazako larrialdiko deialdiaren esparruan.

▷**500.000,00 €** - ZUZ

Haurren osasun mental eta psikosoziala babestea, UNRWAren Gazako larrialdiko deialdiaren esparruan.

▷**250.000,00 €** - IZE

Garapenerako lankidetzako 2024 *Ignacio Ellacuria* Saria.

▷**15.500,00 €** - SAR

44
EKIMEN
ONARTU ZIREN

+12,2
MILIOI €
EMAN ZIREN

Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk (3/2)

SEAD

Saharar errentzako elikadura-segurtasunerako estrategia.

▷**199.993,91 €** - PRE

Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan ingurumen-osasuneko zerbitzuak hobetzea.

▷**198.425,23 €** - PRE

Osasun oftalmologikoa eta optikoa indartzea Tindufeko kanpamenduetan errefuxiatuta dauden saharar ren artean.

▷**137.300,29 €** - PRE

Saharako errefuxiatuen kanpamenduetako bigarren hezkuntzako ikastetxeetan eskola-elikadurako programa.

▷**800.000,00 €** - EHE

Desgaitasuna duten pertsonen elikadura-segurtasuna hobetzea.

▷**773.260,27 €** - EHE

Saharako errefuxiatuei gas naturala eskuratzeko aukera egokia eta jasangarria areagotzea, etxean dituzten oinarrizko premiak betetzeko.

▷**200.000,00 €** - IZE

HEGO SUDAN

Gatazka eta indarkeriaren ondorioz egoera ahulean dauden nerabe eta gazteentzako eraldaketa-zentroak. IV. Fasea.

▷**200.000,00 €** - PRE


KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA

Masisin indarkeria armatuaren gorakadak biztanlerian izandako eraginaren kontra, osasun osoko erantzun humanitarioa eta sexu-indarkeriaren eta generoan oinarritutako indarkeriaren aurkako babesa.

▷**200.000,00 €** - PRE

Sektore anitzeko laguntza humanitarioa, indarkeriazko gatazka iraunkorren ondorioz ekialdeko populazioen bizi-narriadurari aurre egiteko.

▷**200.000,00 €** - PRE



SIRIA

Ahalduntze-estrategiak palestinako emakume errefuxiatuen zaurgarritasuna murrizteko.

▷**800.000,00 €** - EHE

TXAD

Txad aintzirako probintzian hezkuntza sustatzea eta egoera ahulenean dauden familia desplazatuen bizibideak indartzea.

▷**200.000,00 €** - PRE

ETIOPIA

Tigrayko gatazka armatuak eragindako herritarren babesa, eskubideak eta osasuna, eta baita generoan oinarritutako sexu-indarkeriatik eta indarkeriatik bizirik atera direnen eskubideen babesa ere, genero-ikuspegiarekin eta Lotura Hirukoitzarekin.

▷**200.000,00 €** - PRE

Errefuxiatuentzako eta harrerako herritarrentzako kalitatezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea.

▷**200.000,00 €** - PRE

Tigray eskualdean gudak kaltetutako landa-komunitateei erantzun humanitario integrala ematea.

▷**199.999,17 €** - PRE

Lau eskola indartzea, haurrak babesteko eta bakea eta berdintasuna eraikitzeko espazio gisa, Afar auzoko bi barrutitan.

▷**199.836,19 €** - PRE

Ikasketa humanitarioen zentroa Mekellen, Tigray.

▷**270.000,00 €** - ZUZ

KENYA


Gatazka armatuen ondoriozko errefuxiatuen osasuna babestuz, sexu-indarkeria eta generoan oinarritutako indarkeria azpimarratuz, tokiko sarea indartuz eta parte hartuz eta kontuak emanez.

▷**800.000,00 €** - EHE

44
EKIMEN
ONARTU ZIREN

+12,2
MILIOI €
EMAN ZIREN

Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk (3/3)



NAZIOARTEKOA

Errefuxiatuentzako Jesuita Zerbitzua Fundazioaren Esparru Estrategiko Globala (2025-2029) modu parte-hartzailean eta lokalizatuan lantzea.

▷**150.000,00 €** - ZUZ

MALI

Zantiguilako landa-eremuan lekuz aldatutako biztanleen bizi-baldintzak hobetzea.

▷**200.000,00 €** - PRE

Eskola seguruak: gatazkaren biktima izan diren haurrei kalitatezko hezkuntzarako sarbide segurua ematea.

▷**199.999,99 €** - PRE

NIGER

Krisi humanitarioak: Lotura Hirukoitza aplikatzea lokalizaziotik eta genero-ikuspegitik.

▷**200.000,00 €** - PRE

Parte-hartze eraldatzaile baterantz eta tokiko lidergo baterantz eskualdean dauden programa humanitarioetan.

▷**50.000,00 €** - ZUZ

LIBANO

Palestinako emakume errefuxiatuentzako sexu- eta ugalketa-eskubideak eta ama-haurren osasunerako eskubidea ziurtatzea.

▷**200.000,00 €** - PRE

Laguntza medikoa, psikosoziala eta hezkuntzakoa hegoaldeko hamar kokaleku informaletan.

▷**199.999,57 €** - PRE

Babliyeheko errefuxiatuei eta harrera biztanleriari kalitatezko osasun-arreta eta babesa bermatzea.

▷**200.000,00 €** - PRE

Ahalduntze sozioekonomikoa, intzidentzia eta emakume errefuxiatuen ahultasuna murriztea Saidako hamaika kokaleku informaletan.

▷**799.999,34 €** - EHE

SUDAN

Sudan 2024rako Erantzun Humanitarioko Planarekin lerrokatutako eta OCHAk kudeatutako esku-hartze humanitarioetarako ekarpena.

▷**179.000,00 €** - ZUZ

KAMERUN

Bois de Singes auzoko emakume desplazatuen elikadura, osasuna eta hezkuntzarako eskubidea.

▷**199.999,25 €** - PRE

1.6.2. Erantzuna Gazako krisi humanitarioari

UNRWA Errefuxiatu Palestinarrentzako Nazio Batuen Agentziari languntzen jarraitu genuen, Nazio Batuen batzorde independente batek Israelgo Estatuak Gazako Zerrendako biztanle palestinarren aurka egindako genozidiotzat jotzen duenaren aurrean larrialdideiari erantzuteko.

Deialdiaren esparruan, laguntza gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, haurdun dauden emakumeak eta hamabi hilabetetik beherakoak artatzera bideratu zen, baita eskolaadineko adingabeen osasun psikosozialera ere.

1.6.3. Sudanerako Erantzun Humanitarioko Planari 2024an egindako ekarpena

Nazio Batuetako Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoak (OCHA, ingelesezko sigletan) kudeatzen duen Sudango Funts Bateratu Nazionalari lagundu genion zuzeneko dirulaguntzaren bidez. Hala, Sudango herritarren oinarrizko beharrak asetzen dituzten esku-hartze humanitarioak finantzatu genituen; hala nola hezkuntza, ura eta saneamendua, aterpea, osasuna, elikadura, babesa eta emakumeen aurkako indarkeria.

Lehen aldia da eLankidetzak zuzenean laguntzen duela Erantzun Humanitarioko Plan nazional batean ezarritako lehentasunei erantzuten.

1.6.4. Ikasketa Humanitarioen Zentroa Tigrayn

Egoaizia elkarteari dirulaguntza zuzena eman genion Mekelleko unibertsitatean, Etiopiako Tigray eskualdean, Ikasketa Humanitarioen Zentroa sortzeko.

Zentro horren helburua da bertako eragile humanitarioen gaitasunak indartzea eta ekintza humanitarioarekin lotutako prestakuntza-eskaintzen koordinazioa hobetzea.

1.6.5. Trebakuntza eta esperientziak trukatzea

Lotura hirukoitza

Ikerketa bat egin genuen 2018-2023 aldian finantzatutako ekimenetan ekintza humanitarioa-garapena-bakea gaien arteko lotura hirukoitzaren ikuspegia nola txerta daitekeen aztertzeko. ***Ikerketa-lana*** Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikerketarako Institutuak (IECAH, gaztelaniazko sigletan) egin zuen, eta lotura hirukoitzaren ikuspegia gehitzeko garaian eLankidetzak aplikatu zituen irizpideak baloratu, zailtasunak eta aukerak identifikatu eta etorkizuneko ekintzetarako gomendio zehatzak eman zituen.

Azaroan, ekintza humanitarioari buruzko seigarren trebakuntza- eta truke-espazioa antolatu genuen. Edizio horren ardatza lotura hirukoitzaren kontzeptuan sakontzea izan zen, bai eta kontzeptu hori sustatzeko dauden muga, aukera eta erronketan ere, lankidetza autonomiko batetik, gero eta bortitzagoa den eta gero eta behar humanitario gehiago dituen testuinguruan oinarrituta.

Espazioa IECAHko taldeak dinamizatu zuen, eta aurrez aipatutako ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten lehen saioan. Gainera, hamalau euskal erakundek, tokiko erakundek eta unibertsitate-zentrok lotura hirukoitza praktikan jartzeko garaian pilatu zituzten esperientziak partekatu zituzten Kolonbian, Ekialdeko Jerusalemen eta Gazan, Afrika Erdiko Errepublikan, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Ruandan eta Tanzanian ezarritako proiektu zehatzetan.

Bestalde, zuzeneko dirulaguntza batekin lotuta, Gernika Gogoratuz zentroak lotura hirukoitzari buruz antolatutako ikuspegi kritikoen 2. mintegian ere parte hartu genuen. Bertan, ekintza humanitarioaren lokalizazioarekin lotuta gure esperientzia eta ikasitakoa partekatu genuen.

Subiranotasun humanitarioa

Maiatzaren 24an eta 25ean prestakuntza-gune bat antolatu genuen, subiranotasun humanitarioaren kontzeptuan sakontzeko, xede-herrien parte-hartzearekin, inklusioarekin eta agintearekin eta ekintza humanitarioaren lokalizazioarekin duen harremana ezagutzeko.

Fernando Almansa aholkulari humanitarioak dinamizatu zituen saioak. Lehenengoan, modu birtualean, subiranotasun humanitario terminoa sozializatu zen. Helburu diren herrien lokalizazioa, parte-hartzea, inklusioa eta autoritatea barne hartzen dituen kontzeptua da, eta Funtsezko Arau Humanitarioaren 2024ko edizio berriari buruzko hausnarketa kritikoa egin zen bertan. Era berean, erakunde humanitario baten subiranotasun humanitarioaren maila baloratzeko Tahuso tresna aurkeztu eta hurrengo eguneko aurrez aurreko saioan praktikan jarri zen.



1.7. Gizarte-eraldaketarako hezkuntza

1.7.1. Emandako funtsen % 13 Euskadiko ekintzetarako erreserbatzea

Tresna	Onartutako ekimenak guztira	Emandako zenbatekoa guztira	Euskadin gauzatutako ekimen kopurua	Euskadin emandako zenbatekoa	Funtsak Euskadin, emandako funtsen aldean
PRO K3	25	6.672.873,58 €	25	6.672.873,58 €	% 11,75
GBA	9	294.533,41 €	9	294.533,41 €	% 0,52
IZE	23	3.642.400,00 €	12	1.692.400,00 €	% 2,98
BEK	4	80.000,00 €	4	80.000,00 €	% 0,14
ZUZ	12	2.736.800,37 €	1	30.000,00 €	% 0,05
Beste tresna batzuk	103	43.342.006,34 €	-	-	-
GUZTIRA	**176**	**56.768.613,70 €**	**51**	**8.769.806,99 €**	**% 15,45**

1.7.2. (H)ABIAN 2030 estrategiaren ezarpena



VII. Heziketa Topaketa: bakeari begira heztea

Maiatzaren 29an, *Heziketa Topaketaren* zazpigarren edizioa egin genuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin. Gizarte zibileko eta erakunde publikoetako hezkuntza eta lankidetza arloko eragileak bildu ziren, eta, han, Mendebaldeko Sahararekin, Palestinarekin eta Euskadirekin lotutako hezkuntza arloko ekintzen bidez bakea lantzeko moduari buruzko esperientziak partekatu zituzten.

Heziketa Topaketaren esparruan material hauek sortu ziren:

Gida ***Bideoa***

Gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko VII. jardunaldiak: mugimendu sozialen eta GGKEen arteko eraldaketa sozialerako artikulazioko erronkak

Apirilaren 17an, gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko zazpigarren jardunaldiak egin genituen. Urtero bezala, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta Hegoa-Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuak antolatu zituzten jardunaldiak.

Edizio honetan, beste behin, (H)ABIANen lehen ideia nagusia jorratu genuen: herritartasun global jasangarri eta ekitatiboko alternatibak bilatzen eta eraikitzen dituzten subjektuei laguntza ematea. Gizarte-mugimenduen eta GGKEen arteko jakintza-elkarrizketa ahalbidetu zen, mugimendu horien arteko artikulazioaren erronkei buruz hausnartuz, gero hezkuntza-ekintza eraldatzaileetara bideratu ahal izateko. Bi subjektuek gizarte-aldaketaren benetako prozesuak aurrera eramateko subjektu kritikoak nola eraikitzen, laguntzen eta indartzen dituzten aztertu zen.

Hizlari izan ziren Ana Esther Ceceña Martorella, Geopolitikaren Latinoamerikako Behatokiko koordinatzailea, eta Itziar Gandarias Goikoetxea, Deustuko Unibertsitateko irakaslea; eta gainera Martin Etxea, Aigua és Vida plataforma eta Baladre koordinakundearen esperientziak ere partekatu ziren.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan

Beste behin, *Euskadiko Gazteak Lankidetzan* programaren 30. edizioan hartu genuen parte Gazteria Zuzendaritzarekin batera.

Zehazki, 66 gaztek (% 89 emakumeak) parte hartu zuten esperientzian hamaika euskal erakunderen eta bederatzi herrialdetako hamasei toki-erakunderen bidez.



1.7.3. *Ignacio Ellacuría* Saria UNRWAri

Garapenerako lankidetzako 2024ko *Ignacio Ellacuría* saria Palestinar Errefuxiatuentzako Nazio Batuen UNRWA Agentziari eman genion 75 urtez etengabeko gatazkak jasan dituen Palestinako herriarekin erakutsitako konpromisoa, ibilbidea eta dedikazioa direla eta.

Gainera, erakundeak Palestinako biztanleriarekin justiziaren eta giza eskubideen alde egiten duen zuzeneko lanaren alderik gizatiarrena nabarmendu nahi izan zen.



1.8. Ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa

1.8.1. Lankidetza deszentralizatuari buruzko urteko txostena

Urte hasieran, ***Lankidetza Deszentralizatuari buruzko 2023ko txostena*** aurkeztu genuen Euskadin eta Bruselan. Bertan daude jasota estatu azpiko eta tokiko gobernuen Garapenerako Laguntza Ofizialaren 2017-2021 aldiko zifrak, zein herrialde adierazgarrien kasuak eta gizarte zibileko erakundeen bidez bideratutako laguntza mota garrantzitsuenak.

Bruselako aurkezpena Europar Batasunerako Euskadiren ordezkaritzan egin genuen, PLATFORMAren eta Europako Batzordearen arteko lankidetza-esparruaren barne.

- 2021ean, 11 herrialdetako gobernu deszentralizatuek 3.000 milioi dolar bideratu zituzten Garapenerako Laguntza Ofizialera; hau da, aurreko urtean baino % 14 gehiago. Urte horretan, Euskadi izan zen ekimen solidarioetara funtsak bideratu zituen munduko lehen emailea, eta gehienak gizarte zibileko erakundeek bideratu zituzten.
- Txostenak bereziki nabarmendu du lankidetza deszentralizatuaren gertutasuna; izan ere, horri esker, lurralde osoan hedatuta dauden herritarren erakunde ugari babes daitezke, eta, beraz, nazioarteko lankidetza gizartean gehiago sustraitzea, herritartasun globala indartzea eta tokikoaren eta globalaren arteko lotura sendotzea ahalbidetzen du horrek.

Urtean zehar, 2024ko txostena prestatu zen. Hiriek garapenaren nazioarteko finantzaketan duten zeregina aztertzen du txostenak eta emaitzak datorren urtean aurkeztuko dira jendaurrean.



1.8.2. Proiektuetarako dirulaguntza tresnaren ebaluazioa

Abenduan, 2007-2024 proiektuetarako dirulaguntza (PRO) tresnaren ebaluazio mistoa abian jartzeko aurrerapausoak eman ziren, indarrean dagoen testuinguru juridikora eta eLankidetzako lankidetza- eta elkartasun-politika publikoaren helburuetara egokitutako araudi berri bat sortzea ahalbidetuko duten ikaskuntzak, ondorioak eta gomendioak ateratzeko. Horretarako, lizitazio bat argitaratu zen, ebaluazioa egiten teknikoki laguntzeko zerbitzu espezializatu bat kontratatzeko. Lizitazioa 2025aren hasieran ebaztea eta hamabi hilabeteko epean garatzea aurreikusten da.

PRO tresna Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren eta elkartasunaren arloan duen politika publikoaren ekintza-ardatz nagusietako bat da. Ebaluatuko den aldi horretan, hemezortzi deialdiren bidez, 541,5 milioi euro eman zitzaizkien 1.527 proiekturi Euskadin eta Hegoaldeko 49 herrialde pobretutan, eta 118 euskal erakunde baino gehiago eta 409 toki-erakunde mobilizatu dira. Horrek esan nahi du, aldi horretan, Euskadiko GGKE handienentzako laguntzen deialdia izan dela, eta Estatuko garrantzitsuenetako bat.

Horregatik guztiagatik, ebaluazio honek izaera estrategikoa du, eta ebaluazio horretatik ateratzen diren ondorioek Eusko Jaurlaritzaren lankidetza- eta elkartasun-politika publikorako tresnaesparru koherentea eta eraginkorra sustatzeko helburu zabalagoa lortzen ere lagunduko dute.

Ebaluazioaren helburuak:

- 18 deialdiak aztertzea eta haien ezaugarriak zehaztea, eta joera nagusiak identifikatzea, bai finantzatutako proiektuetan, zein finantzatu gabekoetan.
- Dekretuetan aurrez ikusitako helburuak eta finantzatutako proiektuetan lortutako emaitzak alderatzea.
- Ezarritako araudi-esparruko elementu nagusiak egokiak eta aplikagarriak diren ala ez baloratzea laguntzen dekretuaren eta urteko deialdi bakoitzaren arabera.
- Tresnaren eta urteko deialdien inguruan eLankidetzak egindako barne-kudeaketa baloratzea.
- Proiektuei laguntzeko tresnaren balio diferentzialа aztertzea, Euskadin eta Estatuan indarrean dauden beste laguntza-tresna batzuekin alderatuta.

1.8.3. Finantza-lankidetzari buruzko jardunaldiak

3/2024 Legea onartu zenetik -*ikusi 1.11.1 atala*-, garrantzi berezia du askotariko eragileen gaitasun guztiak aktibatzea eta mundu mailako justiziaren aldeko borrokari aurre egiteko baliabide berriak ugaritzea ahalbidetuko luketen tresna berriak martxan jartzea. Ildo horretan, arau berriak finantza-lankidetzaren modalitate berri bat aurreikusten du, Euskadik ez baitu orain arte horretarako tresnarik izan.

Hala, ekainaren 20an, Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin batera, finantza-lankidetzari buruzko jardunaldiak antolatu genituen, euskal erakundeek eta elkarteek arlo horretan dituzten gaitasunak indartzeko. Horretarako, hainbat arlotako adituen esku-hartzeaz gain, besteak beste erakunde hauen esperientzia zehatzak partekatu ziren: Anesvad, Ayuda en Acción, Oxfam, Save the Children edo Alboan.



1.9. Jarraipen-bidaiak



GUATEMALA ETA MEXIKO

Migrazio-ibilbideekin lotuta, Guatemala hirian, Tapachulan eta Ciudad Juárez hirian ekintza humanitarioko ekimenei jarraipena egitea.

▷ eLankidetza

10/18 - 10/25

GUATEMALA

Jarraipena herrialdean babestutako ekimenei (Guatemalako hiria, Sololá, Chimaltenango).

▷ eLankidetza

04/09 - 04/16

EL SALVADOR

Ura eta saneamendua kudeatzeko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko tailerrean parte hartzea, AKUAL programaren barruan.

Ikusi 1.1.3. atala.

Eta udalerri mailako emakume hautetsien lidergo eta partaidetzako Esperientziak Trukatzeko Foroan parte hartzea, El Salvadorreko NBE Emakumeak erakundeari emandako zuzeneko dirulaguntzaren barruan.

Ikusi 1.1.5. atala.

▷ EUDEL, Euskal Fondoa, Emakunde eta eLankidetza

05/12 - 05/19

HONDURAS

Medicus Mundi Bizkaiak bultzatuta, emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen osasun mentala gaia modu integralean jorratzeko jarraipena egitea eta tokiko eragileekin aurrez aurreko prestakuntzan parte hartzea.

▷ eLankidetza

10/22 - 10/25

DANIMARKA

Bisita UNICEFek Kopenhagen duen zentro logistikora.

▷ eLankidetza

10/17

KOLONBIA

Jarraipena egin zitzaion *NARE - Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programak* hartu dituen giza eskubideen defendatzaileen egoerari. Ikusi 1.3.2. atala.

▷ Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza, eLankidetza, Eusko Legebiltzarra eta gizarte-erakundeak

01/20 - 01/27

GINEA BISSAU

Ginea Bissau-Euskadi Osasun Globala programaren ezarpenaren jarraipena egin zen.

Ikusi 1.1.2. atala.

▷ Osasun Saila, Osakidetza eta eLankidetza

01/10 - 01/17

BOLI KOSTA

INADESen eskualdeko tailerrean parte hartzea. Bertan, klima-aldaketarekiko egokitzapena, arintze-neurriak eta erresilientzia oinarritzat dituzten hamazazpi proiektutatik ateratako ikaskuntzak partekatu ziren.

▷ eLankidetza

11/04 - 11/07

BRASIL

Jarraipena herrialdean babestutako ekimenei (Sao Paulo, Brasilia, Curitiba, Porto Alegre).

▷ eLankidetza

03/17 - 03/24

1.10. Komunikazioa

1.10.1. EITBrekin hitzarmena

EITBrekin daukagun lankidetza-hitzarmenarekin aurrera egin genuen. Aliantza estrategiko horren helburua da garapenerako lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari buruzko komunikazio- eta sentsibilizazio-jarduketak batera bultzatzea.

Komunikazio-ekintza hauek egin ziren 2024an zehar:

- ***Norte-Sur*** podcastaren bigarren denboraldian bost atal emititu ziren. Bertan, eLankidetzak babesten dituen gai nagusiak lantzen dira, eta laguntza ematen diegun pertsona eta erakundeen ahotsa entzun daiteke horietan.



- Honako hauei buruzko ikus-entzunezko eta soinudun lanak zabaltzea irratian, telebistan eta Interneten: ***AKUAL programa***, ***Euskal Lankidetza Publikoaren Ataria***, ***Ginea Bissau-Euskadi Osasun Globala programa***, ***SEADeko krisi ahaztua*** eta ***Euskal lankidetzaren eta elkartasunaren balioa***.

- eLankidetzaren lankidetza, atzerrian bizi diren kooperanteak aurkitzeko, ***Euskadi Solidaria ETBko saio*** berrian parte har dezaten. Saioa *Vascos por el Mundo* programak izandako esperientzia arrakastatsuaren ondorioz sortu da, eta kooperanteek nazioarteko lankidetzaren sektorean pilatutako esperientzia pertsonala eta profesionala partekatzea du helburu.

Guztira, 153 iragarki eskaini zituzten ETB1en eta ETB2n, eta audientzia hauek izan zituzten:

- ETB1: 48.000 ikusle.
- ETB2: 11.500 ikusle.

1.10.2. #Euskalankidetza kanpaina – Elkartasunezko mundu baten alde dihardugu

Giza Elkartasunaren Nazioarteko Egunean, abenduaren 20an, ***#Euskalankidetza*** kanpaina, Euskadiko lankidetzari eta elkartasunari balioa ematen diena, jarri genuen abian.

Elkarrizketa-formatu batean, non euskal elkartasunaren munduko pertsonek hitz egiten duten eta ideiak trukatzen dituzten, gure lankidetzan aritzeko modua bereizten duten elementuak nabarmendu ziren.

EITB taldean ez ezik, kanpaina sare sozialetan, plataforma digitaletan eta webguneetan ere ikusgai egon zen.

Hona hemen kanpaina horri buruzko datu batzuk:

- Guztira, iragarkia ia 3 milioi aldiz erreproduzitu zen sare sozialetan, eta 215.000 lagunek ikusi zuten.
- Telebistan, iragarkia 51 aldiz eskaini zuten ETB1en eta ETB2n, eta batez besteko audientzia 36.000 ikuslekoa izan zen.

1.10.3. Legeari buruzko materiala

Lankidetzarako eta elkartasunerako 3/2024 Legea indarrean sartu zenean -*ikusi 1.11.1 atala*-, legegintzako testuaren edukiak modu atseginagoan zabaltzeko komunikazioko materialak eta irudi grafikoa sortu genituen.

Triptikoa ***Postalak***









Horrez gain, ***Norte-Sur*** podcastaren bigarren denboraldiko ataletako bat lege berriaren azterketari eta sozializazioari eskaini genion, eta hura sortzeko lanean parte hartu zuten pertsonen hitzak jaso zituen.

1.11. Araudia eta plangintza

1.11.1. 3/2024 Legea, Lankidetzarakoa eta elkartasunerakoa

2024ko martxoaren 1ean sartu zen indarrean ***3/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarakoa eta Elkartasunerakoa***, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. Arau horri dagokionez, bereziki azpimarratu beharrekoa da erakundeen, elkarte sozialen eta Eusko Legebiltzarraren artean adostasun handia lortu zuela, eta Euskadiko lankidetzaren eta elkartasunaren inguruko ikuspegi bateratu eta partekatuaren emaitza dela.

2021ean hasi zen legea prestatzeko prozesua, eta hainbat eragilek hartu zuten parte, hala nola Euskadiko eta Estatuko administrazio publikoek, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, akademiak, zentro teknologikoek, erakunde feministek, LGTBIQ+ kolektiboek, migratzaileen elkarteek, Nazio Batuei lotutako erakundeek edo hezkuntza arloko eragileek.

Legeak helburu hauek ditu: giza garapena eta jasangarritasuna bultzatzea, pobrezia eta bazterketa eragiten duten egiturazko arrazoiak eraldatzea, desberdintasunen aurka borrokatzea, eta giza eskubideen alde eta justizia globalaren alde lan egitea. Gainera, gizarte aske, demokratiko, baketsu eta inklusiboak sustatu nahi ditu, baita gizartean balioak aldatu ere, eta helburu horiek lortzeko mobilizazio soziala bultzatu.

Era berean, Euskadiko sektore publikoa bat dator helburu komun batekin: errenta nazional gordinaren % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialera bideratzea.

> ***Elkartasunak batzen gaitu.***
>
> *Nerea Melgosa*
> *Berdintasun, Justizia eta Gizarte*
> *Politiketako sailburua (XII. legegintzaldia)*

Araudiaren berritasun nagusiak:

- Euskal sektore publiko osoari eta gainerako eragileei dei egiten die politika solidarioaren alde.
- Euskal lankidetzako eta elkartasuneko eragileen ibilbideari, konpromisoari eta egiten jakiteari balioa ematen die.
- Euskal lankidetza publikoa antolatzeko erakunde-arkitektura berria finkatzen du.
- Lankidetza eta elkartasun politika publikoaren garrantzia areagotu eta bere eraginkortasuna hobetu nahi du.
- Euskal lankidetzarekin lotutako plangintza-mekanismo eta modalitate berriak finkatzen ditu.
- Lankidetzarako euskal politika gauzatzeko baliabideak eta gaitasunak indartzen ditu.
- Ezagutza, ikaskuntza eta komunikazioa hobetzeko aurreikuspenak ezartzen ditu.



1.11.2. 2018-2024ko IV. Gida Planaren amaierako ebaluazioa

2024an, 2018-2024ko IV. Gida Planaren amaierako ebaluazioa egin genuen, 2021ean hiru urtez luzatua, tarteko ebaluazioa egin ondoren. Barne-ebaluazioko prozesua izan zen, eta hainbat lankidetza-eragileren ekarpenak, kontrasteak eta gaian aditua den pertsona baten kanpoko ikuspegia jaso zituen.

Ebaluazio-prozesua gardentasun-ariketa bat da 2018-2024 aldian egindakoaren berri emateko, eta bitarteko ebaluazio-dokumentuaren planteamendua eta egitura zenbait hobekuntza eta elementu gehigarrirekin errepikatu zituen.

2018-2024 amaierako aldiaren azken ebaluazio-txostena


I. eranskina. 2018-2023An emandako funtsak[3]

2018-2024 aldiko mugarri nagusiak:

- Lankidetza deszentralizatuari balioa ematea.
- Aurrerapauso nabarmenak arauzko esparruan eta plangintzan.
- Aurrekontuaren egonkortasuna.
- Aurrerapausoak koherentzian eta koordinazioan.
- Lehentasun estrategikoak sendotzea.
- Ezagutza sortzearen, gardentasunaren eta komunikazioaren aldeko apustua.
- eLankidetza sendotzea.

Etorkizunari begirako ikaskuntza-prozesu gisa planteatu genuen ebaluazio hau, hurrengo plangintzaldiari begira erabakitzeko ea azken urteotan bultzatu ditugun lan-ildoetan sakondu behar dugun ala berriz planteatu behar ditugun, eta, era berean, 3/2024 Legearen esparruan jorratu beharko ditugun elementuak identifikatzeko.

Ebaluazio horren intsumo eta ondorioekin, 2025aren hasieran plangintza zehaztea aurreikusi zen, gutxienez hurrengo bi urteetarako.



3 Ebaluazio-prozesua 2024an egin zen. Beraz, emandako funtsekin lotutako datu kuantitatiboak, dokumentuan jasotzen direnak, 2018-2023 aldikoak dira.

Etorkizunera begirako erronkak:

- 3/2024 Legea hedatzea.
- Politika hedatzeko behar diren baliabideen zuzkidura betetzea (% 0,7).
- Aurrera egitea Eusko Jaurlaritzaren garapen jasangarrirako politiken koherentzian.
- Erakundeen arteko koordinazio handiagoa zehaztea.
- Lankidetzarako eta elkartasunerako zer euskal ekosistema nahi dugun berriz pentsatzea.
- Lankidetzarako eta elkartasunerako politikan eragile berriak sartzeko lanean aurrera egitea eta, aldi berean, jada parte hartzen duten eragileekiko harremana sendotzea.
- Zilegitasuna irabaztea euskal herritarren aurrean eta herritarrak mugiaraztea, gazteak bereziki.
- Euskal lankidetzak Europarekin eta nazioartearekin duen konexioa indartzea.
- Ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa sustatu eta ebaluazioaren kultura bultzatzea.
- Tresnak sakon berrikustea.
- Kudeaketa-prozedurak desburokratizatzea, sinplifikatzea eta arintzea, eta dirulaguntzen araubidea lankidetzaren espezifikotasunera egokitzea.
- 3/2024 Legean planteatzen diren ikuspegien esanahia eta irismena garatzea.
- IV. Gida Planeko apustu sektorialen planteamendua eta irismena berrikustea.
- Ingurumeneko lanaren aldeko apustua eta klima-aldaketari aurre egitea.

1.11.3. Eragile anitzeko elkarrizketa-prozesua

2018-2024ko IV. Gida Planaren azken ebaluazioak ondorioztatzen du Euskadiko lankidetzarako eta elkartasunerako ekosistemako eragileen artean elkarrizketa-prozesu bat garatu behar dela, azken urteetan egiteke geratu diren debateak zein 3/2024 Legeak planteatzen dituen erronkak jorratzeko. Elkarrizketa-prozesu horrek lankidetzaren eta elkartasunaren euskal sistema birpentsatzen edo birkokatzen lagunduko du, eta, batez ere, eLankidetzaren lankidetza- eta elkartasun-politikaren helburuak definitzeko ondorioak aterako ditu.

Elkarrizketa-prozesuaren plangintza definitzeko, 2024ko azken lauhilekoan lantalde misto bat osatu genuen eLankidetzaren eta kanpo-aholkulari baten artean, honetarako:

- Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sistemaren egungo egoera identifikatzeko, etorkizuneko elkarrizketak diseinatzeko oinarrizko intsumo gisa.
- Lehentasunez jorratu beharreko eragileak eta gaiak definitzeko.
- Datozen bi urteetan egin beharreko elkarrizketa nagusiak egituratzeko.
- Elkarrizketak modu arrakastatsuan egiteko beharrezko baldintzak deskribatzeko.

Kanpo-aholkulariak, eLankidetzarekin koordinazioan eta elkarrizketan, bost elkarrizketa izan zituen lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sistemako eragileekin eta bi lantailer egin zituen (bat euskal sistemako eragileekin eta bestea eLankidetzako lantaldearekin). Gainera, eragile anitzeko elkarrizketa-proposamena taxutzeko, dokumentu instituzionalak berrikusi ziren, eta aholkulariaren eta eLankidetzako prozesu hori sustatu zuten langileen artean hainbat lan-saio egin ziren.


Horren ondorioz, aholkulariak ezarpen-proposamena definitu zuen, eta, proposamen horretan, datozen bi urteetan egingo diren lehentasunezko hiru elkarrizketa egitea gomendatzen du:

- Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal sistema birkokatzea.
- Erakunde mailako artikulazioa eta koherentzia, eta elkarrizketa prospektiboa.
- Euskadiko lankidetzako eta elkartasuneko enpresa sektorearen rola.

2025aren hasieran, 2018-2024 Gida Planaren ebaluazioa egin ondoren, datozen urteetarako planifikazio-dokumentua zehaztea aurreikusi da. Dokumentu horretan, prozesu horren berri ematea espero da, 2025ean bertan sustatzen hasteko.

1.11.4. . 2024-2026 Babes Ibilbide-orria eguneratzea

2023an Babesaren Ibilbide Orriaren exekuzioa berrikusi ondoren, eta giza eskubideen defendatzaileen babesaren arloko egungo erronketarako egokia izaten jarraitzen zuela iritzita, 2024an ***2024-2026 aldirako eguneratzea*** erabaki genuen. Barne-prozesu bat izan zen, babesaren arloan lan egiten duten lankidetza-eragileekin kontrastatu zena.



1.12. Pertsonen eta baliabideen kudeaketa

Langileak

2024ko abenduaren 31n, eLankidetzako taldea 38 langilek osatzen zuten: 27 emakumek eta 11 gizonek.

Laguntzak ematea

2024an, 56.768.613,70 euro eman genituen laguntzatan, 43 herrialde pobretutan eskubideak gauzatu eta lortzen laguntzeko, eta, halaber, herritar kritikoak sustatzeko Euskadin, giza garapen jasangarriaren, justiziaren eta elkartasunaren alde.

Ikusi datuen azterketa hurrengo kapituluan.



02

Aurrekontuaren egikaritzea eta emandako funtsak


2.1. Aurrekontu-bilakaera

2024rako aurrekontua 56.286.496 eurokoa izan zen: Eusko Jaurlaritzak emandako 55.921.110 euro, eta URAk emandako 365.386 euro, uraren kanonaren % 5eko bilketari dagokion zenbatespena.

> ***2024rako guztizko aurrekontua 56.286.496 euro izan ziren.***

2015-2024 aldiko aurrekontu-bilakaera

Urtea	EAEko Administrazio Orokorraren aurrekontua	eLankidetzaren aurrekontua	eLankidetzaren eta EAEko aurrekontuen arteko erlazioa (%)
2015	10.782.663.682 €	40.026.830 €	% 0,37
2016	11.136.869.798 €	43.026.830 €	% 0,39
2017	11.513.050.603 €	45.165.872 €	% 0,39
2018	11.791.434.211 €	46.533.177 €	% 0,39
2019	12.481.366.402 €	46.968.732 €	% 0,38
2020	12.233.625.126 €	50.005.542 €	% 0,41
2021	13.618.112.690 €	49.723.474 €	% 0,37
2022	14.699.869.209 €	50.505.959 €	% 0,34
2023	15.302.582.495 €	51.725.598 €	% 0,34
2024	**15.025.411.000 €**	**56.286.496 €**	**% 0,37**



2.2. eLankidetzaren aurrekontuaren egikaritzea



2024ko ekitaldian, eLankidetzak aurrekontuan jasotako 56,3 milioietatik % 98,49 egikaritu zuen.

	Aurrekontu eguneratua	Aitortutako betebeharrak	Egindako ordainketak	Egikaritutako %
Langile-gastuak	2.560.150 €	2.477.757 €	2.477.757 €	% 96,78
Funtzionamendua	994.218 €	699.804 €	699.804 €	% 70,39
Dirulaguntzak	52.662.128 €	52.240.958 €	52.228.393 €	% 99,20
Inbertsioak	70.000 €	19.176 €	19.176 €	% 27,39
GUZTIRA	**56.286.496 €**	**55.437.695 €**	**55.425.130 €**	**% 98,49**

Eguneratutako aurrekontua funtzionamendu-gastuetatik inbertsio-gastuetara bideratutako 70.000 euroko transferentziaren emaitza da, hasiera batean, ez baitzuen saldorik. Aurrekontuaren guztizko zenbatekoa ez zen aldatu.

2024an inbertsio eta altzarietan egindako inbertsioen guztizko zenbatekoa 19.176 eurokoa izan zen. Inbertsio horiek Eusko Jaurlaritzak 2019 eta 2020 ekitaldietan eLankidetzari atxikitako espazioak egokitzeko gehitutako kapitalaren dirulaguntzari dagokion kontu-saileko 101.046 euro aldizkatutak zituelako egin ahal izan ziren.

Dirulaguntzen partidan, 52,7 milioi euro zeuden aurreikusita 2024ko aurrekontuan, eta 52,2 milioi ordaindu ziren azkenean. Zehazki, 23.828.099 euro 2024ko emakiden lehen ordainketei dagozkie; 27.263.945 euro, berriz, aurreko urteetako deialdien bigarren eta hirugarren ordainketei (2024ko aurrekontukoak); eta 150.000 euro, aldiz, eLankidetzak EITBrekin sinatutako hitzarmenean egindako ekarpenari. Bestalde, 998.914 euroren ordainketak aldizkatu genituen, 2024rako berrikusi zirenak eta 2025ean egikarituko direnak. Beraz, aitortutako betebeharrak 52,2 milioi eurokoak izan ziren.

Horrez gain, 2023ko aurrekontuetan aurreikusitako ordainketen 986.349 euro ordaindu ziren, ekitaldi horietan aldizkatu zirenak. Hala, dirulaguntzen kontu-sailetik egindako ordainketen guztizkoa 52.228.392,59 €[4] izan zen 2024an.

Informazio gehiago nahi izanez gero, eLankidetzaren urteko kontuak ***hemen*** ikus daitezke.

4 Zenbateko hori bat dator Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioari 2024ko Garapenerako Laguntza Ofizialaren fluxuei buruzko txostenean jakinarazitakoarekin.

2.3. Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente eta erakunde autonomoen aurrekontuen egikaritzapena


eLankidetzaren bitartez bideratutako funtsez gainera, Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente eta erakunde autonomo batzuek ere nazioarteko lankidetzako ekintzak egiten dituzte, Garapenerako Laguntza Ofizial gisa zenbatu daitezkeenak.

Saila, ente edo erakunde autonomoa	Zenbatekoa
Lehendakaritza - Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren zuzendaria	775.289,30 €
Lehendakaritza - Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkari nagusia	230.000,00 €
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea	18.000,00 €
Osasun Saila / Osakidetza	320.054,00 €
IHOBE - Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa	13.901,00 €
SPRI - Basque Trade & Investment	990.115,00 €
Hezkuntza Saila	250.000,00 €
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	59.000,00 €
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila	3.040.000,00 €
Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila	110.000,00 €
Justizia eta Giza Eskubideen Saila	420.000,00 €
GUZTIRA	**6.226.359,30 €**

Finantzatutako ekimen bakoitzaren xehetasunak ikusgai daude ***hemen***.

2024an, Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzara bideratutako partida guztien egikaritzapen osoa 61.664.053,98 eurora iritsi zen (eLankidetzaren 55.437.694,68 euro eta beste sail eta erakundeen 6.226.359,30 euro). Eusko Jaurlaritzak egikaritutako aurrekontu osoaren % 0,41 da hori.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-exekuzioaren bilakaera



2.4. eLankidetzak 2024an emandako dirulaguntzak

Kontseilu Errektoreak urtarrilaren 29an onartu zuen dirulaguntzen plan estrategikoa; bertan, 2024. urterako ***funts banagarriak*** sartzen dira.

Berritasun gisa, programen tresna (PGM) berreskuratu genuen, identifikazio-faserako bost dirulaguntza esleituta. Era berean, eLankidetzan (BEK) espezializazio-beken lau kategoria tematikoei eutsi zitzaien: generoa, ekintza humanitarioa, gizartea eraldatzeko hezkuntza eta giza eskubideak.

Hala, funts hauek onartu ziren 2024an:

Tresna	Emateko aurreikuspena	Emandako zenbatekoa	Egikaritze-maila	% emandako guztizkoaren gain
PRO	**40.000.000 €**	**39.370.470,16 €**	**% 98,43**	**% 69,35**
PRO K1	*31.700.000 €*	*31.700.000 €*	*% 100*	*% 55,84*
PRO K2	*1.600.000 €*	*997.596,58 €*	*% 62,35*	*% 1,76*
PRO K3	*6.700.000 €*	*6.672.873,58 €*	*% 99,60*	*% 11,75*
PRE	**5.600.000 €**	**5.705.803,95 €**	**% 101,89**	**% 10,05**
EHE	**4.800.000 €**	**4.773.259,61 €**	**% 99,44**	**% 8,41**
GBA	**433.000 €**	**294.533,41 €**	**% 68,02**	**% 0,52**
ZUZ	**3.431.494,45 €**	**2.736.800,37 €**	**% 79,76**	**% 4,82**
IZE	**3.642.400 €**	**3.642.400 €**	**% 100**	**% 6,42**
SAR	**15.500 €**	**15.500 €**	**% 100**	**% 0,03**
BEK	**80.000 €**	**80.000 €**	**% 100**	**% 0,14**
PGM	**150.000 €**	**149.846,20 €**	**% 99,90**	**% 0,26**
GUZTIRA	**58.152.394,45 €**	**56.768.613,70 €**	**% 97,62**	**% 100**

Banatu daitezkeen funtsen egikaritzapen maila % 97,62 izan zen. Beste behin, desbideratze nagusiak bi tresna hauetan gertatu ziren: erakundeetan genero-berdintasunaren alde erakunde barruko aldaketa-prozesuak egiteko laguntza-tresnetan (GBA) eta zuzeneko dirulaguntzak (ZUZ). GBA-ren kasuan, eskatutako guztizko zenbatekoa aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa zen eta, gainera, bi eskaera baztertu egin ziren (bat baldintzak betetzen ez zituelako eta bestea ez zelako eskatutako gutxieneko puntuaziora iristen).

Zuzeneko diru-laguntzen kasuan (ZUZ), ez zen gauzatzearen % 100era iritsi, emandako ekimenen zenbatekoa tresnarako hasieran aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa izan baitzen.


Adierazi behar da proiektu-tresnaren (PRO) 2. kapituluan aurrekontuan aurrez ikusitakoa baino funts gutxiago eman zirela, bost ekimen kanpoan geratu zirelako, baldintzak betetzen ez zituztelako eta eskatutako gutxieneko puntuaziora iristen ez zirelako. Ezin izan ziren funts horiek banatu Dekretuak ez duelako aurreikusten zenbatekoa kapituluen artean edo beste tresna batzuetara bideratzea.

Azkenik, araudiak ezartzen duen bezala, ekintza humanitarioko esparru-estrategien (EHE), genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuen (GBA) eta lankidetza-programetarako laguntzen (PGM) tresnetatik egikaritu gabe geratu ziren funtsak ekintza humanitarioko proiektuen lerrora (PRE) bideratu ziren. Hori dela eta, tresna horrek gainexekuzioa izan du.


2024an emandako dirulaguntzen zerrenda osoa ikusgai dago ***hemen***.


Tresna	Aurkeztutako ekimenak	Emandako ekimenak	Funtsak agortu direlako onartu ez diren ekimenak	Baztertutak ekimenak	Ezetsitako ekimenak	Emandako ekimenak, aurkeztuen aldean	Emandako ekimenak, onartu daitezkeenen aldean
PRO	**147**	**87**	**35**	**20**	**5**	**% 59,18**	**% 71,31**
PRO K1	*102*	*59*	*23*	*15*	*5*	*% 57,84*	*% 71,95*
PRO K2	*8*	*3*	*-*	*5*	*-*	*% 37,50*	*% 100*
PRO K3	*37*	*25*	*12*	*-*	*-*	*% 67,57*	*% 67,57*
PRE	**37**	**29**	**7**	**1**	**-**	**% 78,38**	**% 80,56**
EHE	**11**	**6**	**3**	**1**	**1**	**% 54,55**	**% 66,67**
GBA	**11**	**9**	**-**	**2**	**-**	**% 81,82**	**% 100**
ZUZ	**13**	**12**	**-**	**1**	**-**	**% 92,31**	**% 100**
IZE	**23**	**23**	**-**	**-**	**-**	**% 100**	**% 100**
SAR	**1**	**1**	**-**	**-**	**-**	**% 100**	**% 100**
BEK	**22**	**4**	**1**	**7**	**10**	**% 18,18**	**% 80**
PGM	**15**	**5**	**3**	**6**	**1**	**% 33,33**	**% 62,50**
GUZTIRA	**280**	**176**	**49**	**38**	**17**	**% 62,86**	**% 78,22**


Jarraian, emandako dirulaguntzen banaketa jaso da, GJHak lortzeko egindako ekarpenaren, eragileen, eremu geografikoaren eta herrialdeen arabera sailkatuta.






% 0,77
Iparreko administrazio publikoei lotutako elkartea
Erakunde 1 / 434.579,37 €
% 1,03
Iparreko sindikatua
Erakunde 1 / 585.486,94 €
% 1,69
Hegoko elkartea / fundazioa
8 erakunde / 960.000 €
% 2,33
Iparreko ikerketa-zentroa
2 erakunde / 1.324.317,42 €
% 8,57
NBEri laguntzeko iparreko lantaldea / elkartea / fundazioa
3 erakunde / 4.865.498,99 €
% 83,94
Iparreko elkartea / fundazioa
57 erakunde / 47.649.730,98 €
% 0,63
Alde anitzeko nazioarteko erakundea
2 erakunde / 360.000 €
% 0,32
Iparreko unibertsitatea
Erakunde 1 / 180.000 €
% 0,32
Alde anitzeko hegoko erakundea
Erakunde 1 / 179.000 €
% 0,26
Nazioarteko elkartea / fundazioa
Erakunde 1 / 150.000 €
% 0,14
Iparreko pertsona fisikoa
4 pertsona / 80.000 €
AGENTEAK
GUZTIRA 56.768.613,70 €
81 erakunde


% 10,07
Asia
5.713.836,46 €
% 1,95
Nazioartekoa
1.107.159,84 €
% 27,81
Ertamerika, Mexiko eta Karibe
15.785.039,10 €
% 15,45
Euskadi
8.769.806,99 €
% 18,22
Hego Amerika
10.340.921,26 €
% 26,51
Afrika
15.051.850,06 €
EREMU GEOGRAFIKOAK
GUZTIRA 56.768.613,70 €



1 Euskadi: 8.769.806,99 € (% 15,45) 2 Guatemala: 4.506.076,47 € (% 7,94) 3 El Salvador: 4.173.570,35 € (% 7,35) 4 Peru: 3.355.631,22 € (% 5,91) 5 Mexiko: 3.191.354,39 € (% 5,62) 6 Kolonbia: 2.763.574,72 € (% 4,87) 7 Ekuador: 2.338.159,76 € (% 4,12)
8 SEAD: 2.316.483,84 € (% 4,08) 9 Senegal: 1.925.410,65 € (% 3,39) 10 Kongoko Errepublika Demokratikoa: 1.845.487,11 € (% 3,25) 11 Palestina: 1.813.869,57 € (% 3,20) 12 Kuba: 1.729.823,42 € (% 3,05) 13 Mali: 1.458.570,57 € (% 2,57)
14 Libano: 1.399.998,91 € (% 2,47) 15 Honduras: 1.310.260,25€ (% 2,31) 16 India: 1.199.967,98 € (% 2,11) 17 Ginea-Bissau: 1.149.999,00 € (% 2,03) 18 Bolivia: 1.105.476,13 € (% 1,95) 19 Etiopia: 1.069.835,36 € (% 1,88) 20 Kenya: 850.000,00 € (% 1,50)
21 Siria: 800.000,00 € (% 1,41) - Nazioartekoa: 747.159,84 € (% 1,32) 22 Brasil: 608.763,38 € (% 1,07) 23 Mozambike: 600.000,00 € (% 1,06) 24 Somalia: 600.000,00 € (% 1,06) 25 Boli Kosta: 599.858,78 € (% 1,06) 26 Burundi: 598.650,00 € (% 1,05)
27 Tanzania: 579.754,01 € (% 1,02) 28 Jordania: 500.000,00 € (% 0,88) 29 Haiti: 444.411,34 € (% 0,78) 30 Nikaragua: 434.753,00 € (% 0,77) 31 Zimbabwe: 271.309,34 € (% 0,48) - Herri anitzekoa: 250.000,00 € (% 0,44) 32 Niger: 250.000,00 € (% 0,44)
33 Txad: 200.000,00 € (% 0,35) 34 Hego Sudan: 200.000,00 € (% 0,35) 35 Kamerun: 199.999,25 € (% 0,35) 36 Venezuela: 199.999,00 € (% 0,35) 37 Sudan: 179.000,00 € (% 0,32) 38 Costa Rica: 68.115,87 € (% 0,12) 39 Uganda: 50.000,00 € (% 0,09)
40 Hegoafrika: 50.000,00 € (% 0,09) 41 Malawi: 50.000,00 € (% 0,09) 42 Mauritania: 7.492,15 € (% 0,01) 43 Txile: 5.991,05 € (% 0,01)

MEMORIA
2024

LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA

LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

www.elankidetza.euskadi.eus | @eLankidetza